

Charles BAUDELAIRE

## Poema xipiak laxoan

*(Parisko gogo ilundura)*

\*

\*\*

\*\*\*

\*\*

\*

Charles Baudelaire-ren *Petits poèmes en prose (Le spleen de Paris)*

Jean-Baptiste Orpustan-ek euskarara itzuliak



## (Eskaintza)

### Arsène Houssaye-ri (\*)

Adixkide maitea, lan xipi bat igortzen dautzut, ezpaitaiteke erran bururik ez buztanik eztuela, oro, aldiz, buru eta buztan baitu, aldizka ala elgarrekin. Behazu, othoi, zein errextasun miragarriak eskaintzen dauzkun molde horrek orori, zuri, eni eta irakurleari. Motz dezakegu nahi dugun lekuan, nik ene ametseria, irakurtzaleak bere irakurtzea ; ezpaitut hunen borondate gibelkaria ixtorio ezteus baten hari ezin bururatuari lotzen. Ekhenazu orno bat, eta asmakeria bihurdikatu hunen bi zatiak nekerik gabe elgarretaratuko dira. Xeha ezazu phuxka ainitzetan, eta bakoitza berex bizi daitekeela ikusiko duzu. Zati horietan batzuek zuri gustatzeko eta zure jostatzeko aski bizi ukanen dutelako ustean, suge osoaren zuri eskaintzera ausartzen niz.

Egin behar dautzutan aithormen xipi bat badut. Aloysius Bertrand-en *Gauazko Gaspar* (\*\*) aipatuaren horstokatzean (zutaz, nitaz et gure adixikidetarik batzuek ezaguna den liburu batek, eztitua *aipatua* errana izaiteko dretxo guziak ?), hogeigarren aldikotz bederen, dut ukan berdintsua den zerbaiten hasteko gogoia, eta bizi modernoaren erakuspenari edo izaitekotz bizi oraiko eta gauzetarik urrunduago *bati*, harek lehengo bizi hain bitxiki ikusgarriari emana zaukon egin moldearen emaita.

Gutartean nor da, bere handi-nahizko egunetan, hitz laxo poetiko batez amets egin eztuena, neurkadarik eta errimarik gabe musikaduna, arimaren olde lirikoer, ametseriaren izurdurer, konzienziaren jauzier arautzeko aski malgua eta aski zaintsua ?

Hiri handienetan ibiltzetik, haietako harreman ezin zenbatuetarik da oroz gainetik gogamen ezin baztertu hori sortzen. Zuhaurek, adixkide maitea, eztuzua *Berinaginaren* oiuhu samina *kantu* batean itzuli nahi ukan, eta hitz laxo musikari batean erran oiuhu horrek, karrikako lanho gorenetan gaindi, azken bizitegiatarano igortzen dituen aieru lastimagarriak ?

Baina, egiaren erraiteko, ene bekaizkeriak zorionik ekharri eztautalako beldurra badut. Lana hasia ukan nuen orduko, ohartu nintzan enindagola bakarrik ene molde emaille mixteriozko eta distiratutik urrun, baina oraino banagiela zerbait (hau *zerbait* izenda badaiteke) hain bereziki ezberdina, nitaz bertze edozeinek urgulu estakurutako har lezakeen nahigabea, baina barnatuki aphal baizik eztezakeena xede duenaren *zuzen* egitea poetaren ohore handiena dela dadukan bat.

Zure adixkide on, C. B.

(\*) *La Presse* egunkariaren buruzagia : eskaintza hau 1862-ko agorrilaren 26-an hartan agertu zen hoge poema xipiekin batean. (Itzultzailearen oharra)

(\*\*) Aloysius Bertrand-en liburu horren izenburua ezaguna da Ravel-ek gai beraz egin zuen pianoko musikatik. (Itzultzailearen oharra)

## I

### Arrotza

Nor duk maiteago, mixteriozko gizona, errak ! aita, ama, arreba ala anaia ?

- Eztut ez aita, ez ama, ez arreba, ez anaiarik.
- Adixkideak ?
- Baderabilazu hor egun arteo ezaguna gabe egona nizan elhe bat !
- Aberria ?
- Zein eskualdetan jarria den jakin gabe niz.
- Edertasuna ?
- Gogotik maita nezake, jainkosa eta hil ezina.
- Urrea ?
- Hastio dut zuk Jainkoa hastio duzun bezala.
- He ! zer duk bada maite, arrotz ohi ez bazalako ?
- Maite ditut hedoiak... diragaiten hedoiak... hantxetan... hantxetan...

mirazko hedoiak !

## II

### Atxoaren etsipena

Atxo xahar ximurtua dena bozkariatua senditu zen bakoitzak besta egiten zaukon, jende guziek laket izan nahi zaukoten haur pollit haren ikustean ; izaite pollit hura, atxo xaharra bera bezain beratza, eta hura bezala ere hortzik eta ilerik gabe.

Eta hurbildu zizakon, irriño batzu eta begitarte joko gozagarri batzu egin nahiz.

Baina haurra harritua zalapartan ari zen emazteki zahar okituaren pherekuen azpian, eta etxea bere garrasiez betetzen zuen.

Orduan atxo ona baztertu zen betiereko bakartasun batera, eta zoko batean nigarrez ari zen, bere buruari ziola :

- « Ha ! guretako, ema-zahar zorigaitzekoak, laket izaiteko adina iragana da, ogengaber ere ; eta maitatu nahi ditugun haur ttipien baitan lazta dugu sortzen! »

### III

#### **Edergilearen « confiteor »-a**

Zenbat sarkorrak diren larrazkeneko egun ondarrak ! Ha ! sarkorrak oinazerano ! ezen badira sendimen ezin goxoago batzu ez garbi izaiteak ezpaitee indarra ekhertzen ; ezta ere mugagabearena baino punta zorrotzagorik.

Goxatasun handia behakoaren murgiltzea zeruaren eta itsasoaren neurrigabea ! Bakartasun, ixil, zero urdineko garbitasun ezin erkidatua ! bela ttipi bat itsas-hertzean ikharatzen, eta, bere ttipitik eta bakarretik, ene izanara sendagaitzaren berdina, sagailoaren kantu ezin aldatua, gauza horiek orok nitan gogoetatzen dute, edo nik dut hetan gogoetatzen (ezen ametseriaren zabalean, *ni*-a laster galtzen da) ; gogoetatzen dute, diot, baina musika eta margazki aran, estakururik eman gabe, arrazoinkatzerik gabe, ondorioztatzerik gabe.

Bizkitartean, gogamen horiek, nitarik athera daiten ala gauzetarik jalgi, berehala azkarregi bilakatzen dira. Atseginean gemenak ez-ontsa bat emaiten du eta oinaze egiazko bat. Ene zain luzatuegiek eztemate gehiago dardaraldi oihukari eta mingarririk baizik.

Eta orai zeruaren barnatasunak goibelzten nau ; duen garbiak sumintzen. Itsasoaren sendikaitzak, ikusgarriaren alda ezinak jazarr-arazten naute... Ha ! behar dea betiere sofritu, ala betiere ederrari ihes egin ? Naturaleza, urriki gabeko lilluratzalea, etsai beti irabazlea, utz nezak ! Ene gutizien eta ene urguluaren azikatzetik geldi hadi ! Ederraren lantzea gudu bat da, hartan erdergilea laztarekin oihuz ari baita garhaitua izan baino lehen.

### IV

## Jostagarri bat

Urte berriko jauztean zen : lohi eta elhur baltsa, mila karrosa erditik joanki, jostagailu eta onenez phindarretan, gutizia eta etsipenak ihaurri, hiri handi baten erotasun ofiziala bakarti azkarrenaren buru-munen nahasteko egina !

Hirrun-harrun eta harramantza horren erdian, arsto bat bazoan bizi-bizia, azote bat eskuan zuen zartzail batek akhulaturik.

Arstoan oinbide baten izkinan itzultzera zoanean, jaun eder bat eskularruekin, bernizatua, lephokoaz bortizki tinkan eta jantzi berri-berri batzuetan preso, zeremoniarekin gurtu zen abere xumearen aitzinean, eta erran zaukon, burukoa ekhenduz : « Ona eta zoriduna agiantzatzen dautzut ! » gero itzuli zen nik dakita zein lagunen aldera bere buruaz askietsia denaren itxuran, haren loriari bere baieztamendua eman zezoten othoizteko bezala.

Arstoak etzuen jostagarri eder hori ikusi, eta lasterretan jarraiki zen arthoski bere eginbideak deitzen zuen lekura.

Ni aldiz, bapatez neurtezinezko errabia batez hartua izan nintzan zozola mirazko horren gana, Frantziako izpiritu guzia bere baitan biltzen zuela iduritu baitzizatan.

## V

### Gambara bikuna

Ametseria bat iduri duen gambara bat, gambara bat zinez *izpirituduna*, han gelditua dagon airea arinki gorraxtaz eta urdinez margoztatua baita.

Han arimak auhertasunezko mainu bat hartzen du, urrikiak eta gutiziak usainontzen dutena. – Zerbait ilunabarreko, urdinaran eta gorraxtaran ; atseginkeriazko amets bat iguzkiaren itzalaldi batean.

Mublek molde luze batzu dituzte, eroriak, gurituak. Mublek ametsetan iduri dute ; erran laitezke lotarik dabilanaren biziarekin, landaretzea eta lurkia nola. Oihalek hizkuntza ixil bat mintzo dute, liliek nola, zeruek nola, iguzkiek etzaterakoan nola.

Murruetan ederlaneko itsuskeriarik batere. Amets hutsaren ondoan, aztertu ezten iduripenaren, ederlan garbia, ederlan zinezkoa blasfemio da.

Hautu ezin hobeko usain on izpi bat, heze arin-arin batekin nahasia, badabila aire hortan, izpiritua erdi-lotan landaretegi bero bateko sendimenez leriatura denean.

Musulinararen euria nasai leihoen eta ohearen aitzinean ; elhur uhainetan ixurtzen da. Ohe horren gainean etzana da Jainkosa, ametsetako erregina. Baina nolaz da hemen ? Nork ekharri du ? zein mixteriozko botherek du ametseria eta goxatasunezko tronu hortan ezarri ?

Horra bada ilunabarra zilatzen duten garrekilako begi horiek ; *mirale* xorrotz eta izigarri horiek, duten maltzur lazkarritik ezagutzen baititut ! Bereganatzen dute, azpiratzen, beha dagozkieten zuhurtziagabeari behakoa iresten. Usu ikertuak ditut, ikus-nahia eta miresmena manatzen dituzten izar beltz horiek.

Ha ! zein debru ongi-nahiari zor daukot horrela mixterioz, ixilez, bakez eta usain onez inguratua izaitea ? Oi dohatsutasuna ! ohiki bizia deritzogunak, duen hedamen zoritsuenean ere, ezer ez du berdinek orai ezagutzen dutan eta minutaz minuta, zekundaz zekunda atseginekin hartzen dutan bizi goien horrekin !

Ez ! ezta gehiago minutarik, ezta zekundarik ! Aroa joan da ; Betikotasuna da errege, goxatasunezko betikotasun bat !

Baina ukaldi izigarri, phizu batek jo du athean, eta, ifernuzko ametsetan bezala, aitzur ukaldi batek golkoan joiten ninduela iduritu zata.

Eta Mamu bat sartu da. Uxer bat da legearen izenean oinazkatzera heldu zatana ; ohaide ahalgegarri bat da miseriaz oihu egitera heldu eta bere biziko zirtzilkerien emaitera enearen oinazen gainera ; edo egunkari bateko buruzagiaren laster-mutila ezku-izkirio baten jarraipenaren eskatzera.

Parabisuzko gambara, jainkosa, ametsetako erregina, *Zylfida*, « René » handiak zion bezala, mira hori guzia Mamuak jo duen ukaldi abrean ezeztatu da.

Zer laztea ! orhoit niz ! orhoit niz ! Bai ! Atherbeska hau, betiereko aspertzearen egoitza hau, enea da ba. Huna muble zozo, erraustu, markestuak : khebidea surik eta itxindirik gabe, thuz zikindua ; euriak errautsean marrak utziak dezteen leiho trixteak, esku-izkirioak, zirri-marraturik edo ez bururatuak ; izkiriatzekoak hartan egun ilunak marratuak dituen almanaka !

Eta bertze mundu bateko usain on hura, hartaz burxoratzen bainintzan sendikortasun xorroxtu batekin, ondikotz ! nik dakita zer mutzidura higungarriz

nahasia den tabako usain gaixto batek lekua hartu dauko. Hatsa hemen lastima kharmindu batean hartzen da orai.

Mundu hertsi huntan, baina okaztatzez hain betean, gauza bakar batek dauta oraino irriño bat egiten : xaralika bottoilak ; adixkide zahar eta jarraikia ; eta adixkide guziak bezala, ondikotz ! pherekuz eta zimarkuz emankor.

Oi ! ba ! berragertu da Aroa ; Aroa da orai errege, eta zahar itsusi horrekin batean itzuli da haren debruzko lagundia : Orhoitzapen, Urriki, Herstura, Beldur, Antsia, Ameskaitz, Haserre 'ta Zaineria.

Segurtatzen zitut orai zekundek azkarki eta ospez dutela joiten, eta bakoitzak, erloitik jalgitzean, badio : - « Bizia niz, Bizi ezin jasana, ezin jabaldua ! »

Ezta gizonaren bizian Zekunda bakar bat baizik mezua berri on baten iragartzea duena, berri on bat, bakoitzari ezin argituzko beldurra bademakon *berri ona*.

Bai ! Aroa da errege ; berriz jarri du bere bothere abre osoa. Eta igortzen nau, idi bat banintz bezala, bere akulu bikunaz. – « Bee bada ! aberea ! Izerdi hadi bada, esklaboa ! Bizi hadi bada, danatua ! »

## VI

### **Bakoitzak bere Ametsetakoa**

Zeru hautsaran handi baten azpian, ibar handi erraustun batean, biderik gabe, soropilik gabe, khardo bat, asun bat ere gabe, gizon batzu aurkitu nituen, ukurturik zoazinak.

Bakoitzak bazekarren bizkarrean gaitzeko Khimaira bat, irin edo ikatz zorro bat bezain, edo oinezko erromatar baten zama bezain phizua.

Baina ihizi izigarria etzen phizu geldi bat ; aldiz, gizona bere ginarri malgu eta indardunez inguratzen zuen eta zapatzen ; lotzen zizakon bere aztapar zabalez zamariaren bularrari ; eta haren buru alegietakoa gizonaren bidarraren gainetik zagon, lehengo gerlariak hetaz etsaien beldurra handituko zutela uste zuten kaska laztagarri bat bezala.

Gizon hetarik bat galdekatu nuen, hea nora zoazin horrela. Ihardetsi zautan batere etzakiela, ez hark, ez bertzek ; baina bazoazila norapait ageri zela, ibiltzeko indar ezin garhaitu batek bultzatuak zirenaz geroz.

Ohartzeko gauza bitxia : bidaiari horietarik batek etzuen haserre iduri lephotik dilindan eta bizkarrean lotua zizakon ihizi abreaz. Aurpegi akitu eta serio horiek orok etzuten etsipenik batere erakusten ; zeruko gopoil gogo iluntzalearen azpian, oinak lur erraustun zerua bezain lastimagarrian sartuak, bazoazin beti esperanza egoitera kondenatuak direnen begitarte etsituarekin.

Eta jende multzoa ondotik iragan zizatan eta hedoi-ertzeko lambroan barna sartu zen, lurraren azal biribildua giza-behaketik gordetzen den gunean.

Eta hisitu nintzan ephe zenbaitez mixterio hori zilatu nahiz ; baina laster Axolagabe ezin ihardokia gainera erori zizatan, eta hartaz zamatua izan nintzan hek berak bere Khimaira lehergarriez baino phizukiago.

## VII

### Eroa eta Benuza

Zer egun mireskarria ! Baratze zabala loriaz aldixartzera doa ekhi erretzalearen begiaren azpian, gazteria Maitasunaren menean bezala.

Gauzen orotako xoramena harrabotsik batere gabe agertzen da ; urak berak lo bezala daude. Gizonen bestetarik ontsa bertzela, asekeria ixil bat da.

Badiduri beti handitzen ari den argi batek gauzak gero eta gehiago dirdira-arazten dituela ; loreak sustaturik margoen gemenaz zeruko urdinarekin zein gehiagoka ari, eta beroak, usainak ikus-araziz, khe batzu bezala izarraren gana igan-arazten dituela.

Bizkitartean, orotako gozamen hortan, bizidun atsekabetu bati ohartu nako.

Gaitzeko Benuz baten oinetan, ero izun horietarik batek, erregeri Urriki edo Asperraz hartuak direnean irri egin-arazteko kargua duten bere nahiz jostakin horietarik batek, buruan adar eta xintxa, oinazpikoaren kontra tinki-tinkia, begi batzu nigarrez beteak Jainkosa hilgaitzaren gana goititzen ditu.



Eta begiek badiote : -« Gizakietarik azkena eta bakartiena niz, maitasunik, adixkidetasunik gabetua, eta hortan ihizi eskasena baino ontsa aphanago. Bizkitartean ni ere, Ederza betierekoaren entzuteko eta senditzeko egina niz ! Ha ! Jainkosa ! urrikian harzkitzu ene tristezia eta ene erotzea »

Baina Benuz ezin-eztitua urrunera nik dakita zeri beha dago bere harbizizko begiekin.

## VIII

### Zakurra eta bottoila

« Ene xakur ederra, ene xakur ona, ene ttette maitea, hurbil zaite eta zaugi hiriko usainon saltzale hoberenaren etxean erosi usain ezin hobe hunen usaintzera. »

Eta zakurra, buztana jauzteka, hori baita, uste dut, izaite gaizo horien baitan, irria eta irriñoa balio dituen, hurbiltzen da eta bere sudur bustia bitxiki ezartzen du bottoila idekiaren gainean ; gero, bapatez iziturik gibelera eginez, ehausiaka hasten zata, erasiatzeko moldean.

« - Ha ! zakur urrikalgarria, gorotz meta bat eskaini baldin banauzu, atseginekin usainduko zinuen eta behar bada iretsiko. Horrela, zuk, ene bizi trixteko lagun ahalgegarria, baduzu publikoaren egite, ehoiz ezpaitzako aspertzen duten usain on goxorik aitzineratu behar, baina arthoski hautatu satsukeriak. »

## IX

### Berinagile gaitza

Badira jite beha egoile hutsak eta egintzako osoki ez gaiak, bizkitartean, olde mixteriozko eta ezezagun baten azpian, ari baitira batzuetan berek hortako ahalik gabe zirela uste zuten lehia batekin.

Athezainaren baitan berri gozagaitz bat aurki beldurrez, bere athe aitzinean herbailki sartzera menturatu gabe oren batez itzulika dabilan bat, eskutitz bat hamabortz egunez ideki gabe badatxikan bat, edo urte hartan egin beharra zen

urrats baten egiteko etsia sei ilabeteren buruan baizik ez hartzen, senditzen dira bapatez indar ezin ihardoki batek, arku batek gezia bezala, egintzara ambilduak. Moralixtek eta medikuek, uste baitute guzia badakitela, ezin argi dezakete arima auher eta atseginkoi horier gemen hoin eroa hoin supituki nundik heldu zeen, eta nola, gauza xoilenen eta beharrenen egiteko ahalik gabe, minuta berezi batez kuraia arraro bat aurkitzen duten egintza arrazoingabeko eta lanjerosenendako ere.

Ene adixkide batek, izan den ametslari eztieta, oihan bati su eman du egun batez ikusteko, zion, suak ohiki erraiten den bezain errex hartzen zuenez. Hamar aldiz entseguak huts egin zuen ; baina, hamekagarreanean, etzen ongiegi baizik heldu.

Bertze batek zigarro bat phiztuko du bolbora barrika baten ondoan, *ikusteko, jakiteko, halabeharraren azikatzeko*, gemenaren erakustera bere buruaren bortxatzeko, jokariarenaren egiteko, antsiako atseginen ezagutzeko, deusetako, burukeriaz, zer egin ez jakinez.

Aspertzetik eta ametsariatik jalgitzen den gemen mota bat da ; eta hoin ustegabeen agertzen zeen horiek, gehiengan, erran dutan bezala, izaitetan nagienak eta ametseriara ixurienak dira.

Bertze bat, gizonen soaren aitzinean begien behititzerano herabea, hanbatetarano nun bere nahikaria guzia bildu behar baitu edandegi batean sartzeko edo antzoki bateko bulego aitzinetik iragaiteko, hango begiztatzaleak iduritzen baitzazko Minos, Eake 'ta Rhadamanteren maiestateaz jantziak, ondotik doakon agure baten lephora jauziko da bapatez eta gartsuki besarkatuko du ustegabetua dagon jendetzearen aitzinean.

Zergatik ? Zeren eta... zeren begitarte hori ezin ihardokitzeko moldean begiko baitzizakon ? Behar bada ; baina arrazoinetzkoago da asmatzea berak ere eztakiela zergatik.

Aldi bat baino gehiagotan gaitzaldi eta olde horien menean izana niz, sinestera emaiten baitaukute Debru maltzur batzu gure baitan sartzen zauzkula eta egin-arazten dauzkigutela, guhaur ohartu gabe, bere nahikaria zentzu gabekoenak.

Goiz batez jeikia nintzan mokor, ilun, auherkeriaz akitua, eta bultzatua, iduriz, egintza mirazko zenbaiten egitera ; eta leihoa ideki nuen, ondikotz !

(Ohar zaitezte, othoi, bairatzeko gogoak, jende batzuen baitan, ezpaita lan edo antolamendu zenbaiten ondorioa, baina ustegabeko argitze batena, egite handia baduela, gutziaren indarraz baizik ezpaliz ere, medikuen araez izterikoa, eta

medikuek baino hobekixago gogoetatzen dutenenaz satandarra den omorearekin, ihardoki gabe egintza lanjeros edo behargabeko batzuetara bultzatzen gituena.)

Karrikan ikusi nuen lehenbiziko jendea, berinagile bat zen, haren oihu samin, makurra, nitarano igan baitzen paristar aire phizu eta zikinean barna. Bertzela ere enezake erran zergatik hartua izan nintzan gizon gaizo horren aldera, herra bapateko bezain bortitzaz.

- « He! He! » eta oihu egin naukon igan zadin. Bitartean gogoetan nindagon, ez alaitasun zerbait gabe, gambara seigarren estaian izanez eta mailaldea biziki hertsu, gizonak neke zenbait ukanen zukeela igaitearen egiten bere salgai hauskorren izkinak leku andana batzuetan lotuz.

Agertu zen azkenean; ikertu nituen arthoski haren berina guziak, eta erran naukon: « Nola? eztuzu kolorezko berinarik? berina gorra, gorri, urdinik, mirazko berinarik, parabisuko berinarik? Ziren ahalgegabea! auzoalde behartu batzuetan ibiltzeko ozarreria baduzu, eta eztuzu bizia ederrean erakuts-araz dezakeen berinatik ere! » Eta bizi-bizia mailaldera bultzatu nuen, han erasian behaztopatu baitzen.

Galeriara hurbildu nintzan eta hartu nuen lore untzi ttipi bat, eta gizona berriz agertu zenean, ene gerlako tresna zuzen-zuzena erortzera utzi nuen haren krakoen gibelego bazterrera; eta ukaldiak aurdiki baitzuen, bizkarrean osoki hautsi zuen bere aberastasun ibilkaria aire gaixtoak lehertzen duen krixtalezko palazio baten harrabots ozena eginez.

Eta neure erokeriaz mozkorturik, oihu egin naukon bortizki: « Bizia ederrean! bizia ederrean! »

Jostagailu zaintsu horiek eztira lanjerrik gabe, eta kario ordain daitezke ainitzetan. Baina zer axola danatzearen eternitateaz, gozamenaren mugagabea zekunda batean aurkitu duenarendako?

## X

### Goizeko oren batean

Azkenean! bakarrik! Ezta gehiago karrosa berandu eta ahitu batzuen burrumba baizik entzuten. Oren zenbaitez, ixila ukanen dugu, atsedena ezpada.

Azkenean ! giza-bekokiaren tirania ezeztatu da, eta ez tut nihauren ganik baizik sofrituko.

Azkenean ! hatshartzea haizu zata ilunbezko mainu batean ! Lehenik, zerrapoari itzuli bieko bat. Iduri zata gako itzuli horrek ene bakartasuna handituko duela eta orai bizitik berex ten nauten barrikadak azkartuko.

Bizi laztagarria ! Hiri laztagarria ! Egun hau berrikus dezagun : letretako gizon batzu ikusi, batek galdegin baitauta Errusiara joan zaitekeenez lurreko bidez (Errusia irla batentzat hartzen zukeen) ; bihotz onez aharratu agerkari bateko buruzagiarekin, ihardokitze bakoitzean ihardesten baitzuen : « Hemen gizon zuzenen alderdia da », horrek entzutera emaiten baitu bertze egunkari guziak frikun batzuek eginak direla ; hoge i bat jende agurtu, hetan hamabortz ez ezagunak zasztalarik ; esku tinkatzeak neurri berean egin, eta hori eskularru batzuen erosteko artharik hartu gabe ; aroaren hiltzeko, erauntsi batean, jauzikarisa baten baitara igana izan othoiztu bainu *Benustra* baten jantzia marrazki dezakotan ; antzoki buruzagi bati gor tea egin, uztean erran baitauta : « Ontsa bazinegike behar bada Z...ri hel eginez ; ene idazletan gizon phizu, zozo eta aiphatuena da ; harekin zerbaitetara hel zinitazke behar bada. Ikusazu, eta gero ikusiko dugu » ; neure buruaz espantu egin (zergatik ?) ehoiz egin ez titutan egintza itsusi batzuen gatik, eta beldurtiki ukatu bozkariorekin egiten ditutan bertze gaizki batzu, aho-berokeriazkoa, giza-errespetuzkoa ; adixkide bati zerbitzu errex bat ukatu, eta frikun betegin bati izkiriozko gomendio bat eman ; uf ! bururatua dea bada ?

Orotaz khexu eta nitaz ere, nahi nuke bada apur bat oneratu eta neure buruaz hoilatu gauko ixilean eta bakartasunean. Maitatu ditutanen arimak, laudatu ditutan guzien arimak, azkar nezazue, niganik urrunzkizue gezurra eta munduko alphor ustelgarriak ; eta zuk, Jainko jauna, emadazu neurtitz eder zenbaiten ontzeko garazia nihauri erakuts dezatatenak enizala gizonetan azkena, enizala gutiesten ditutanak baino beherago.

## XI

### Basemaztea eta anddere xipia

« Zinez, andere maitea, neurrik eta urrikirik gabe akitzen nauzu ; badiduri, zure entzutean hasperenka, hiruretan hogeitako buruxka biltzaleak eta ostatu athetan ogi azal biltzen ari diren eskelarisak baino gehiago oinazkatua zirela.

« Zure hasperenek erran nahi balute bederen urrikitzea, ohore zenbait eman lezazukete ; baina eztiote ontsa izanaren ase eta atsedenen akidura baizik. Eta gero, etzira elhe hutsal batzuen hedatetik gelditzen : « Ontsa maita nezazu ! hain niz horren beharretan ! Konsola nezazu hemendik, phereka bertzetik ! » Oizu, zure sendatzera entseatu nahi dut ; hortako bidea hatzemanen dugu behar bada, bi sosetan, besta baten erdian, eta urrunago joan gabe.

« Ontsa beha dezagun, othoi, burdinazko kaiola horren gibelean zalapartaka ari baita, danatu bat bezala orroaz, burdinak inharrosiz atzerrian sumindua den orang-utang bat iduri, berdinekin, beteginki, noiz tigre baten jauzi-inguruak, noiz hartz zuriaren halda-malda zozoak, zurea aski urrundik itxuratzen duen moldeko mustro iledun horri.

« Mustro hori ohiki « ene aingerua ! » erraiten zakon ihizi horietarik da, erran nahi dut emazte bat. Bertze mustroa, buru haustekotan oihuka ari dena, makila bat eskuan, senarra du. Emaztea burdinetan ezarria du ihizi bat bezala, eta bazterherrietan erakusten du, feria egunetan, lege-gizonen baimenarekin, erran gabe doa.

« Behazu ontsa ! Ikusazu zein amikatuki (ez alegiaz behar bada !) urratzen dituen bere ihizi-zainak botatzen dauzkon lapin biziak eta oilo tiutalariak. « Goazen, dio, eztun ontasun guzia egun batez jan behar », eta, elhe zuhur hortan, bortizki ekhertzen dauko bazka, hunen hertze hustuak baitaude ephe batez ihizi abrearen hortzetan dilindan, emaztearen, erran nahi dut.

« Goazen ! makila ukaldi on bat haren ezkitzeko ! ezen begi gutiziaz laztagarri batzuek itzaten ditu ekhertu zakon janarian. Jainko Handia ! makila ezta alegiazko makila bat, entzun duzua haragia joiten, ile falsua hor izanik ere ? Begiak burutik jalgitzen zazko ere orai, orroaz ari da *naturalkiago*. Bere errabian, phindarretan da guzia, joiten den burdingoria bezala.

« Horrelakoak dira Eba 'ta Adanen bi ondoko horien ezkontarak, zure eskuen lan horienak, oi ene Jainkoa ! Emazte hori segurki zorigaitzekoa da, nahiz ororen buruan, behar bada, loriaren gozamen kilikariak etzazkon ez ezagunak. Badira ezin erremediatuzkoagoko zorigaitzak eta ordaintze gabeak. Baina hartara egotzirik izana den munduan, ehoiz eztu sinetsi ahal ukan emazteak bertze zori bat merezi zuela.

« Orai, gu bier, prezios maitea ! Mundua betetzen duten ifernuak ikusiz, zer nahi duzu goga dezatan zure ifernu pollitaz, eztuzularik zuk atsedetik hartzen zure larrua bezain oihal leunetan baizik, jaten haragierrerik baizik, eta mutil trebe batek hartzen dautzularik janariaren xehatzeko artha ?

« Eta zer erran nahia ukan dezakete enetako zure bulhar usain ondua hantzen duten hasperen ttipiek, kriketa bizkorra ? Eta liburuetan ikasi fazoin horiek guziek, eta bihotz ilundura ezin hezi horrek, ikuslearen baitan urrikitik osoki bertzelako sendimendu baten phitz-arazteko eginak ? Egiazki, batzuetan hartzen nau zuri egiazko zorigaitza zer den erakusteko gutizia batek.

« Zu horrela ikusiz, ene eder beratza, oinak lohian eta begiak ezti-arinki zerura itzulirik, hari errege baten galdatzeko bezala, idealari hel eginez ari den igel gazte bat erran daiteke zinez. Zurhabea gutiesten baldin baduzu (zuretako hala bainiz orai, ontsa dakizun bezala), guardi eman « *bere nahitara kurruxkatuz iretsiko zituen* » lertsunari !

« Poeta izana gatik, eniz sinetsi nahi zinueen bezain enganakor, eta usuegi akhitzten baldin banauzu zure zinkurina *preziosez*, eginen dautzut *basemazteari* bezala, edo leihotik egotziko zitut, botoila huts bat bezala. »

## XII

### Jendaldeak

Jendetze baten erdian mainu baten hartzea ezta bakoitzari emana : jandaldeaz gozatzea ederlan bat da ; eta batek bakarrik egin dezake, giza-arrazaren gastutan, bizkortasunezko ase bat, hada batek ohakoan itxuraldatze 'ta maskaratzeko gostua, etxearen hastioa eta bidaietako hatsa emana dauzkonean.

Jendetze, bakartze : hitz berdinarik eta poeta egile 'ta emankorrik aldizka dezazkeenak. Bakartasunaren jendeztatzen eztakienak, eztaki ere jendalde higikor batean bakarrik izaiten.

Poeta da lege berezi ezin berdindu hortaz gozatzen, bere nahitara bera izan baitaiteke edo bertze norbait. Gorputz baten bila dabilzan arima erratuak bezala, sartzen da, nahi duenean, bakoitzaren baitan. Bakar harendako, oro hutsa da ;

eta leku berezi batzuek hetsiak zazkola iduri baldin badute, haren ustez ikusiak izaita balio ez tutelakotz da.

Ibiltzale bakartu eta gogoetadunak xoramen berezi bat hartzen du ororen bateratze hortarik. Jendetzearekin errex ezkontzen den horrek badazagutza gozamen sukartuak, berekoia, khutxa bat bezala hetsia, eta auherra, karakol bat bezala garzelatua, hortarik betiereko gabetuak izanen baitira. Ofizio guziak bereak bezala hartzen ditu, gertaldiak aitzineratzen dauzkon bozkario eta miseria guziak.

Gizonek maitasuna deritzotena ontsa ttipi da, ontsa hertsi eta ontsa ahul, mozkorreria ezin erran horren ondoan, arimaren saltze saindu horren, osoan emaiten baita, poesia eta garitate, agertzen den ustegabeari, badiragan ezezagunari.

On da mundu huntako zoridun guzier batzuetan erraitea, ezpaliz ephe batez haien urgulu zozoaren aphaltzeko baizik, badirela haien zoriona baino handiagoak, zabalagoak, hautukoagoak. Kolonien ezarlek, jendalden artzainek, munduaren burura igorriak diren aphez misionestek, badadukete xoramen mixteriozko horietarik zerbait; eta, bere jeinuak egina dauen familia zabalaren erdian, irri badagikete batzuetan bere fortuna hoin higituaren eta bizi hoin garbiaren gatik hetaz urrikaltzen direnez.

## XIII

### Alhargunsak

Vauvenargues-ek dio badirela baratze publikoetan bidexka batzu gehienik handi-nahi hautsiek, asmatzale zorigaitzekoek, loria ilhortuek, bihotz erdiratuek, hetan orzantzaldiaren azken hasperenek oraino burrumbatzen duten, boztu eta auherren behako ozarretik gibel egiten duten arima harramantzadun eta hetsi guziek hartzen dituztenak. Bazterleku itzaltsu horiek biziak maingutuen bilguneak dira.

Leku horietara dute poetak eta filosofoak bere uste egarrien bidatzea gehienik maite. Bada hor alhagia segurra. Ezen baldin bada haren ikustea gutiesten duten une bat, aberatsen bozkarioa da gehienik. Hutsaleriazko zirimola horrek ezer eztu bereganatzen dituenik. Aldiz, ezin ihardokituki eremanak sendi dira ahul, higatu, trixtatu, emazurtz den guziaren gana.

Begi ezagutzadun batek eztu behinere huts egiten. Itxura idor edo aurdiki horietan, begi sartu eta hits, edo guduaren azken zimiztez dirdiradun horietan, ibilara hoin baratz eta ikharatuetan, irakurtzen ditu berehala maitasun enganatuaren, atxikimendu ez ezagunaren, indar ez sariztatuen, xumeki, ixilki jasan gose 'ta hotzaren leienda ezin zenbatuak.

Batzuetan ohartu zirea jarleku horietan alhargunsa bakartu, alhargunsa behartu batzuer ? Doluz jantziak ala ez, haien ezagutzea errex da. Bertzela ere, bada beti behartuaren doluan hutsegiten duen zerbait, are zaurigarriago badagien harmonia eskas bat. Bere oinazeaz zikoitz izaitera bortxatua da. Aberatsak badakar berea bete-betean.

Zein da alhargunsa trixte 'ta trixtagarriena, harekin bere ametsa ezin utzi dezakeen haur bat eskutik deraman hura, ala bakar-bakarrik den hura ? Eztakit... Aldi batez gertatu zata mota hortako atso atsekabetu bati jarraitzea ; hark idor, zut, bere izaite guzian bazekarren, lephoko ttipi higatu baten azpian, emazte pairakor baten urgoitasuna.

Ageri zen kondenatua zela, bakartasun oso batez, mutxurdin zahar baten ohiduretara, eta zituen bizimoduen ara gizon moldekoak gehitzen zaukon haren idorrari halako mixterio xixtakari bat. Zein ostatu miseriakoan eta nola bazkaldu zen eztakit. Irakurtzeko salara jarraiki nindakon ; eta luzaz barrandatu nuen gazetetan, begi higikor lehenago nigarrek erre batzuekin, berri harendako azkar eta berezi batzu bilhatzen zituen bitartean.

Azkenean, arratsaldean, larrazken zeru xoragarri baten azpian, urrikiak eta orhoitzapenak handik metan jausten diren zeru hetarik baten azpian, baratzte batean bazterturik jarri zen, entzuteko, jendetzetik urrun, erreximenduen musikak jendalde paristarra hetaz goza-arazten duen musikaldi hetarik bat.

Hori zatekeen atxo ogengabearen (edo atxo garbituaren) atseginkeria ttipia, adixkiderik, solasaldirik, bozkariarik, ixil-mintzalerik gabeko egun phizu hetarik baten konsolamendu ontsa irabazia, Jainkoak gainera erortzen uzten zaukona, urte ainitzez geroz behar bada ! urtean hiruretan hogei-ta-bortz aldiz.

Bertze bat oraino !

Ehoiz enagoke behako bat eman gabe, ezpada orotara maitasunezkoa, bederen jakin nahizkoa, musikaldi publiko bateko hesiaren inguruan metatzen diren erromesen jendaldeari. Orkestrak egozten ditu gauan zehar besta, garaipen edo atseginezko kantuak. Zaiiek herrestatzen dute dirdiratur, behakoek elgar gurutzatzen ; astidunak, jeus ez eginaz akituak, bilintzi-balantzaka ari, alegia



musikaz nagiki gozatzen. Hemen ezer ez aberatsik baizik ; ezer axolagabeaz eta bere buruaren bizitzera uzteaz hatsa hartzen eta harr-arazten ez-tuenik ; ezer, ezpada han kampak heskailuari tinkan dagon jendetze hura, kittorik hatzemanetz, haizearen gustuz, musika izpi bat, eta barneko labetegi phindardunari so.

Gauza ohargarria da beti aberatsaren bozkarioko leinuru hori behartuaren begiaren zolan. Baina egun hartan, zamarrez eta indianaz jantzia zen jendetze horren erdian, ohartu nintzan haren nobleziak inguruneko arrunteria guziari kontra egiten zaukon bati.

Emazte handi bat zen, maiestatuduna, eta bere itxura guzian hain noblea nun ezpainiz orhoit haren berdinek ikusirik iraganeko eder arixtokratikoen bilduma guzietan. Bertute gora baten airea bazabilan haren izaite osoan. Begitartea, trixte eta mehatua, osoki berdinean zen hartaz jantzia zen dolu handiarekin. Hura ere, harekin nahasia zen jendetzea eta ikusten etzuen bezala, so zagon mundu argi hari begi barnatu batekin, eta entzuten zuen burua eztiki higituz.

Ikuspen bitxia ! « Seguraz ere, egin nuen, behartasun horrek, behartasuna baldin bada, eztuke diruari behatze zikoitza onhartzen ; aurpegi hoin nobleak erraiten dauta. Zergatik bada dago bere nahitara orbain bat hoin dirdirakorra badagien ingurumen batean ? »

Baina ikusi nahiarekin haren ondolik iragaitean, arrazoina zer zen asmatzea uste ukan nuen. Alhargunsa handiak bazadukan eskutik haur bat hura bezala beltzez jantzia ; sartze saria hain xumea izanik ere, sari hori aski zen behar bada ttipiaren behar zenbaiten ordaintzeko, eta hobeki, behargabeko zerbaiten, jostagailu baten.

Eta oinez etxeratua izanen dateke, gogoetan eta ametsetan, bakarrik, beti bakarrik ; ezen haurra nehon ezin egona da, ez-titasunik, pairamenik gabea ; eta ezin dateke ere, ihizi hutsak bezala, zakurrak eta gatuak bezala, oinaze bakartuen hartzeko on izan.

## XIV

### Jauzkari zaharra

Jendea lanartetan ari zen orotan hedatzen, barreatzen, jostatzen. Bestaburu hetarik bat zen, ephe luze batez jauzkariak, itzuli egileak, ihizi erakusleak eta saltzale ibilkariak haren aiduru baitaude, urteko ordu gaitzen ordaintzeko.

Badidurit jendeak egun horietan oro ahazten duela, pena eta lana. Ttipiendako lanarteko egun bat da, eskolako hastioa da hogeita laur orenez gibelatua. Adinekoendako baketze bat biziko bothere gaitz egilekin antolatua, atsedeen arte bat orotako indarkatze 'ta guduan.

Gizon mundutarrak berak eta izpirituko lanetara emanak nekez du ihes egiten jendearen bozkario horren eraginetik. Berea iresten dute, nahi gabe, axolagabeko ingurumen hortarik. Nik aldiz, egiazko Paristar bezala, eztut ordu ospedun horietan erakustera emaiten diren etxola guzietan beha egoitea huts egiten.

Bazegiten elgarri, egia erran, zeingehiagoka izigarri bat, tiutaka, marrumaka, orroka. Oihuzko, tuta danbazko, zirrita jauztezko nahasketa bat zen. Buztan-gorriek eta Lelek bere begitarte beltzaranak ikharatzen zituzten, haizeak, euriak eta iguzkiak zimelduak; igorzen zituzten, bere ondorioez segur diren komedialarien ozartasunarekin, athermaldi eta elhe jostagarri batzu Moliere-rena bezalako irrigarritasun azkar eta phizurekin. Herkulesak, bere soin-adar ikaragarriez burgoi, bekokirik gabe, burhezurrik gabe, oran-utangak bezala, bazauden maiestaterekin bezperan aldi hortako ikuzi soineko motzetan. Dantzarisak, hada edo prinzesa batzu bezain eder, jauzi eta buruxkin ari ziren zaiak phindarrez betetzen zezteen argietako su-pean.

Etzen guzia argi, errauts, oihu, bozkario, harramantza baizik; batzuek dirua xahutzen zuten, bertzek irabazten, batzu eta bertzeak bozkario berdinean. Haurrak dilindatzen ziren amen zaia hegaletan azukre ziri baten ukaiteko, edo aiten soigainetara igaiten jainko bat bezain lilluragarri zen gordetzale baten ikusteko. Eta orotan bazabilan, usain on guzietan nagusi, besta hortako isensua bezala zen erregosi usain bat.

Etxola lerroen haraindiko buruan, ahalgetua, ospe horietarik guzietarik bere burua bahitua balu bezala, ikusi nuen jauzkari gaizo bat, ukurtua, hebaindua, zargaildua, gizon ondar bat, bizkarraz bere etxolako hesola bati; salbai abretuenarena baino miseriazkoago etxola bat, eta bi ezko muturrek, khetan zariotela, ezpaitzaukoten herstura ongiegi baizik argitzen.

Orotan bozkarioa, irabazia, atseginkeria; orotan biharamuneko ogiaren segurtasuna. Hemen miseria osoa, miseria jantzia, laztaren mukurruko, philda irrigarriez, hor beharrak baitzuen, antzeak baino gehiago, kontra-egina ezarria. Etzen

irriz ari, miseraulea! Etzen nigarrez ari, ez jantzan ari, ez jestuka, ez oihuka; kanturik batere etzuen kantatzen, ez alairik, ez lastimagarririk, etzen othoizka ari. Ixilik zagon eta geldi-geldia. Etsitua zuen, amor emana. Haren zoria egina zen.

Baina zer so barnatua, ezin ahatzia, zerabilan jendetzearen eta argien gainean, horien uhain higikorra gelditzen baitzen haren miseria higungarritik zenbait urratsetan! Zintzurra senditu nuen zaineriaren esku izigarriaz tinkan, iduritu zizatan soa erori nahi ez tuten nigar ezin atxikiez estalia nuela.

Zer egin? Zer balio zuen dohakabeari galdegiteak zer bitxikeria, zer mira zuen erakusteko ilunbe usaindu horietan, erridau zintzilikatuaren gibelean? Egiazki, enintzan menturatzen; eta ene ahalgaren arrazoinak irri egin-arazi behar balauzu ere, hura apha! beldur nintzala aithortuko dut. Azkenean, iragaitean haren tauletarik baten gainean diru zenbaiten uztera deliberatu berria nintzan, ene xedea asmatuko zuelakoan, jendetzearen gibelatze handi batek, nik dakita zein nahasmenek egin-arazia, hartarik urrun ereman ninduenean.

Itzultzean, ikuspen hori gogotik ezin utziz, ene pena bapatekoaren argitzera entseatu nintzan, eta neure baitan egin nuen: Hor ikusi dut haren jostatzale distiratu izan zen gizaldiaren ondotik bizi egona den letretako gizon zahartu baten iduria; adixkiderik gabeko poeta zaharrarena, familiarik gabe, haurrik gabe, miseriak eta jendearen eskergaitzak apha!dua, mundu ahazkorra ezpaitaiteke sar haren etxolan.

## XV

### Bixkotxa

Bidaiaz nindoan. Jarria nintzan eskualdea handitasun eta noblezia xoragarrikoa zen. Hortarik zerbait iragan zaitekeen ordu hartan ene arimarano. Ene gogoetak hegaldaka zabiltzan aireak zuen arintasun berdinarekin; sendimendu arruntak, hala nola hastioa eta maitasun mundutarra, agertzen zizaztan orai azpian nituen lezetan zoazin hedoiak bezain urrun; arima iduritzen zizatan hartaz inguratua nintzan zeruko gopoila bezain zabal eta garbi; lurreko gauzen orhoitzapena etzizatan bihotzera ahuldurik eta xipiturik baizik jiten, urrunean, bertze mendi baten aldapan alhan ari ziren abelalde ezin ikusien zilintzaren soinua

bezala. Aintzira xipi geldiaren gainean, bere barnatasun neurrigabeaz ilun, baziragan batzuetan hedoi baten itzala, zeruan hara hegaldatzen zen aireko gizandi baten soingainekoaren leinurua bezala. Orhoit niz ere sendialdi ospedun eta arraro horrek, higitze handi osoki ixil batek egina, beldurraz nahasi bozkarioz betetzen ninduela. Hots, sendi nintzan inguratzen ninduen ederza sustagarriari esker, neurekin eta mundu osoarekin bake beteginean ; uste dute ere, ene dohatsutasun osoan eta lurreko gaitz guziaren ahazte betean, gizona ona iaioa dela dioten egunkarien ez hain irriegarri aurkitzerano jina ninzala ; - soin senda ezinak bere galde biziak berrituz, akiduraren arintzeaz eta igaite hoin luzeak eman gosearen hausteaz gogatu nintzanean. Sakelatik hartu nituen ogi zati gotor bat, larruzko kikera bat eta botikariek dembora hartan bidaiarier beharrorduan elhur urarekin nahasteko saltzen zuten edariño batekilako bottoila bat.

Gostuan ene ogiaren mozten ari nintzan, harrabots arin-arin batek begiak goiti-arazi zauztanean. Ene aitzinean bazagon phildez jantzi izaite ttipi bat, beltza, ileak harro, haren begi sartu, ohildu eta othoizle bezalakoek ogi zatia iresten baitzuten. Eta entzun nuen hasperenka, mintzo aphas eta erlats batekin hitz hunen erraiten : *bixkotxa !* Enintzan irri egin gabe egon ahal ene ogi abantzu xuria hartaz ohoratzen zuen izena entzunez, eta zerra eder bat moztu nuen harendako eta eskaini. Emeki hurbildu zen, begiak bere gutiziatik baztertu gabe; gero, zerra eskuaz hartuz, bizi-bizia gibelerara egin zuen, ene eskaintza egiazkoa izan etzadin edo eginik jadanik dolu nindadin beldur izan baliz bezala.

Baina ordu berean bertze salbai xipi batek bulkatua izan zen, nik dakita nundik jalgia, eta hain osoki lehenbizikoaren berdina nun haren anaia biritxiarendako hartu ahalko baitzen. Biak lurrera erori ziren, janari baliosaz aharran, batek ez nahiz agian erdia anaiarendako galdu. Lehenbizikoak, sumindua, bigarrena iletarik hartu zuen ; hunek hari hortzez beharria, eta hartako zati xipi bat bere hizkuntzako sakre miragarri batekin thuaz igorri. Bixkotxaren jabe zuzena bere aztaparñoen sartzera entseatu zen ebaslearen begietan ; bere aldian hau ari zen indar guziez bere etsaia esku batez itho nahiz, bertzeaz guduaren saria sakelan sartu nahiz. Baina, etsiak berphizturik, garhaitua zutitu zen eta irabazlea lurrera egotzi zuen urdailean buru ukaldi batez. Zer balio du haien haur indarrek hitzemaiten zuten baino biziki luzazago iraun zuen gudu higungarri baten erakustek ? Bixkotxa bazabilan eskuz esku eta ephe oroz sakelaz aldatzen zen ; baina, ondikotz izariz ere aldatzen, eta azkenean, ezinduak, hats-hantuak, odoletan, jarraiki ahal gabez gelditu

zirenean, gehiago etzen, egia erran, gudu gairik batere ; ogi zatia ezeztatua zen, eta haiekin nahasia zen ondartz bihiken iduriko porrosketan barreatua.

Ikusgarri horrek eskualdea lanhotua zautan, eta ene arima gizon ume horiek ikusi aitzinean hartan gozaten zen bozkario geldia osoki joana zen ; aski luzaz trixterik egon nintzan, neure buruari ethengabe errepikatuz : « Bada beraz herri mirazko bat han ogia *bixkotxa* deitzen baita, goxokeria hain arraroa nun aski baita anaien arteko gerla oso baten sortzeko ! »

## XVI

### Erloia

Xinatarrek orena gatuen begietan dakusate. Egun batez misionest bat, Nankin-go hiri bazterrean zabilala, ohartu zen sakelorena ahatzia zuela, eta mutiko ttipi bati galdegin zaukon zer ordu zen.

Zeruko Imperioko haurra lehenik dudan egon zen ; gero, bere baitaratuz, ihardetsi zuen : « Erranen dautzut. » Ephe guti berantago, berriz agertu zen, gatu gotor bat besoetan, eta hari so eginez, erraiten den bezala, begiko zurietan, zalantzan egon gabe erran zuen : « Ezta oraino osoki eguerdi ». Egia zena.

Ni aldiz, Felina ederraren gana gurtzen baldin baniz, hain ontsa izendatua, bere sesuaren ohorea dena eta aldi berean ene bihotzeko urgulua eta izpirituko usain ona, izan dadila gaua, izan dadila eguna, argi betean ala ilun osoan, haren begi adoragarrien zolan, beti orena badakusat argiki, beti berdina, oren zabal bat, ospedun bat, mundua bezain handia, minuta eta zekundetari zatikatzerik gabea, - erloietan ezarria ezten oren geldi bat, eta bizkitartean hasperena bezain arin, behakoa bezain zalu.

Eta nardatzale zenbait heldu balizata nahastera ene soa ordulari xoragarri hortan gelditua denean, zenbait Jeinu gaizkile eta bihurri, zenbait ordugabeko Demonio heldu balizata erraitera : « Hoin arthoski zeri so hago ? Izaite horren begietan zer duk bilatzen ? Orena ikusten duka, hilkor xahutzale auherra ? » zalantzarik gabe ihardez nezoke : « Bai, orena badakusat ; Eternitatea da ! »

Eztea hala, anderea, hau zinez merezigarria den madrigal bat dela, eta zuhaur bezain handinahia ? Egiaz, hanbat atsegin ukan dut galankeria urguluntzi hunen josten, nun jeus ezpaitautzut ordainez eskatuko.

## XVII

### Adats batean mundu erdi bat

Utz nezan luzaz, luzaz, hire iletan hats hartzera, ene begitarte osoaren hetan mugiltzera, gizon egarria ithurri bateko urean bezala, eta oihal usainondu bat bezala eskuaz haien higitzera, airean orhoitzapen batzuen inharrosteko.

Ikusten dutan guzia jakin ahal baneza ! sendizen dutan guzia ! hire iletan entzuten dutan guzia ! Arima badoatan usain onean bertze gizonen arima musikarekin bezala.

Hire ilek badadukaten amets oso bat, beladuraz eta mastaduraz betea, haien haizeak aro xoragarri batzuetara baneramaten itsaso handi batzu, han lekua ederrago baita eta barnatuago, airea fruituez, orstoez eta giza-larruaz usainondua.

Hire ilen itsaso zabalaren artetik, portu bat ikusten dinat, orotan gogoilundurako kantu, erresuma orotako gizon azkar eta molde orotako untzi, bere orraze mehe 'ta nahasiak marratzen dituztela betiereko beroa goxoan datzan zeru neurrigabe batean.

Hire adatsaren pherekuetan, berraurkitzen ditinat ohexka baten gainean iragan oren luzeak, untzi eder bateko gambaran, portuko uhainaldi ohargabeaz leriatuak, lore untzi eta edari hoxteko alkarazen artean.

Hire adatsaren berogia sutsuan, hats-hartzen dinat tabako usain lobelar et' azukarrarekin nahasiaz ; hire adatsaren gauan , ikusten dinat itzul-mugetako urdin mugagabea dirdiratzen ; hire adatsaren ur-hegi lumatxadunean, mozkortzen nun mundrunaren, musketaren eta koko-olioaren usain nahasiez.

Utz nezan hire trenza phizu eta beltzen luzaz ausikitzera. Hire ile malgu eta bihurrak hortzikatzen ditinatanean, iduri zatan orhoitzapen jaten ari nizala.

## XVIII

### Bidaiara gomita

Bada herri eder-eder bat, nasaitasuneko herri bat, haren ikustera joaita amesten baitut emazte lagun ohiko batekin. Herri berezia, Ipharreko lanho-pean ithoa, Sartaldeko Orientea izenda laitekeena, Europako Xina, hain ederki da burukeriazko olde beroa han orstatze jakinduru eta arinetan ari izana.

Nasaitasuneko herri egiazko bat, han oro eder baita, aberats, geldi, zuzen ; aberatseria atseginekin baita ordenuko mirailan agertzen ; bizia jori baita eta hats-hartzeko ezti ; handik nahasmen guziak eta ustegabea bahituak baitira ; zoriona ixilarekin ezkondua ; janaria bera aldi berean poetikoa baita, gixena eta sustagarria ; han oro zure iduria baita, ene aingeru maitea.

Miseria hotzetan gutaz jabetzen den eritasun sukardun hura badakin, ezagutzen ezten herriaren min hura, ikusi-nahiaren herstura hura ? Hire iduriko eskualde bat badun, han oro eder, aberats, geldi eta zuzen baitun, han asmamenak eraiki baitin sartaldeko Xina bat eta aphaindu, bizia hats-hartzeko ezti baitun, zoriona ixilarekin ezkondua. Hara da bizitzera joan behar, hara joan behar hiltzera !

Bai, hara da joan behar hats-hartzera, amestera eta sendimenen mugagabeaz orenen luzatzera. Musikari batek izkiriatu du *Balzara gomita* ; nork du eginen *Bidaiara gomita*, emazte maitatuari, arreba hautetsiari eskain daitekeena ?

Bai, ingurumen hartan lizateke bizitzea goxo, - han, oren baratzagoek gogamen gehiago baitute, han erloiek zoriona ospe barnatuago eta errankorrago batekin joiten baitute.

Ohol dirdiradunetan, ala larru urreztatu aberastasun ilunekoetan, bizi daude ixilik margazki dohatsu, geldi eta barnatu batzu, egin zituzten ederlangilen arimak iduri. Iguzkiak etzaterakoan, jateko sala eta saloina hain aberaski koloratzen dituztela, oiha eder batzuez iraziak dira edo berunak xeheki zatikatzen dituen leiho gora landuez. Mubleak zabal dira, ohargarri, bitxi, arima xorroxtu batzu bezala zerrapoz eta segetuz zainduak. Mirailek, burdinakiek, oihalek, urrieriek eta faianzak joiten dute begiendako sinfonia ixil eta mixteriozko bat ; eta gauza orotarik, xoko guzietarik, tiranten arteketarik eta oihalen izurretarik usainon berezi bat jalgitzen da, Sumatrako *berriz-itzul* bat, bizitegiaren arima bezala dena.

Nasaitasunezko herri egiazko bat, dionat, han guzia aberats dena, garbi eta dirdiran, hala nola konzienzia eder bat, sukaldeko kaxa lerro miragarri bat, urreria distiragarri bat, joieria nabartu bat ! Munduko thesorak hara biltzen dira, gizon langile eta mundu osoaren merezimenduak ontsa zor dituen baten etxera bezala. Herri berezia, bertzeak baino goragoa, ederlana Naturelezari zakon bezala, hau han ametsaz berritua baita, zuzendua, edertua, bermoldatua.

Bila ditzatela, bila oraino, gelditu gabe gibela ditzatela bere zorionaren mugak, baratzegintzako alkimixta horiek ! Hiruretan hogeit hamar mila florinen sariak atzineraz dezazkotela bere egintza handi-nahietara helduko denari ! Nik aurkitu ditut ene *tulipa beltza* eta *dahlia urdina* !

Lili paregabea, tulipa berraurkitua, alegorietako dahlia, horrara, herri eder hoin geldi eta ameslari hortara, lizateke bizitzera eta loratzera joan behar, eztea hala ? Ez ote hinzateke hire idurikoaz inguratua, eta ez ote hezakeen heure burua ager-araz, mixtikoak bezala mintzatzeko, hiharen iduriko mirailan ?

Ametsak ! beti ametsak ! eta gehiago da arima handi-nahia eta beratza, are gehiago dine ametsek egin daitekeenetik urruntzen. Gizon bakoitzak badakar bere baitan bere jitezko lo-belar izaria, ethengabe izertua eta berritua, eta, sortzetik hiltzera, zenbat oren dugu khondatzen zinezko gozamenaz beterik, egintza helduaz eta deliberatuaz ? Ehoiz biziko girea izpirituak eman dautan margazki hortan, ehoiz hire iduria den margazki hortara iraganen ?

Thesora horiek, muble horiek, aberatseria hori, ordenu hori, usainon horiek, mirakuluzko lore horiek, hitan ditun. Hitan ere ibai handi horiek eta ubide geldi horiek. Garraiatzen dituzten gaitzeko untzi horiek, gauza aberatsez bete-beteak, hetarik jalgitzen baitira untzi-lanetako kantu beti berdinak, ene gogoetak ditun hire ugatzean lokartuak edo itzulika. Baderamatzan eztiki Mugagabea den itsasora, zeruaren barnatsunak hire arima eder eta garbiaren mirailan ager-arazten ditinen batean ; - eta, uhainek akiturik eta Orienteko gauzez asebetek, sor-portuan sartzen ditunean, ene gogoeta aberastuak ditun oraino mugagabetik hire gana itzultzen.



## XIX

### Behartuaren jostagailua

Libertimendu ogengabeko bat gogora eman nahi dautzut. Hain da ogendunak eztiren josteta guti !

Goizean atherako zirenean bide handietan astira ibiltzeko xedearekin, sakelak betezkizu sos bateko puxkileriez – hala nola polixinela zabaldua, hari bakar batek derabilana, arotzak ingude jaiten, zalduna buztana xixtu bat duen zaldiarekin, - eta edangien luzara, zuhatzen oinean, ezkain ezazkizu aurkituko dituzun haur arrotz eta behartuer. Ikusiko dituzu haien begiak neurririk gabe idekitzen. Lehenbizian eztira hartzera menturatuko ; bere zorionaz dudan egonen dira. Gero eskaintzari bizi-bizia aztaparrez lotuko zazko, eta ihes egingen dute gatuak emana dauezun zatiaren jatera zutarik urrun doazin bezala, gizonaz mesfidatzen ikasirik.

Bide batean, baratze zabal bateko burdin-sarearen gibelean, buruan ageri baitzen jauregi pollit baten aitzin zuria iguzkiak joa, bazagon haur eder larru leun bat, hain aphainak diren baserriko jantzi hetarik soinean.

Aberatseriak, axolagabeak eta gauza baliosen ikusteko ohidurak haur horiek hain pollitak egiten dituzte, nun uste bailizateke bien artean edo beharrean diren hurrez bertze orhe batekoak direla.

Haren ondoan, bazatzen belarrean mirazko jostagailu bat, bere nagusia bezain frexko, bernizatua, urreztatua, arropa gorrindol batez jantzia, eta gandorrez eta berinakiz estalia. Baina haurra etzen bere jostagailu hautetsiaz axolatzen, eta huna zeri beha zagon :

Burdin-sarearen bertze aldetik, bidean, khardo eta asunen artean, bazen bertze haur bat, zikina, herbaila, khedarztatua, alderdigabeko begi batek ederra aurkituko zaukon haur erromes hetarik bat, ezagulearen begiak karrosazain moldeko berniza baten azpian margazki betegin bat asmatzen duen bezala, baldinez, miseriaren higuntasun leundutik garbitzen balu.

Bi mundu, errepidea eta jauregia, berexten dituzten hesola horien artetik, haur behartuak haur aberatsari erakusten zaukon bere jostagailua, hunek amikatuki ikertzen baitzuen gauza arraro et' arrotz bat bezala. Eta, jostagailu hori, zikintsu ttipiak khitzikatzen zuena, untxi sareztatu baten barnean higitzen eta inharrosten,

arratoin bizi bat zen ! Aitamek, xuhurtasunez agian, jostagailua bizian berean hartua zuten.

Eta bi haurrak elgarri irriz zauden anaiatasunean, hortz xuriaz *berdin* batzuekin.

## XX

### Sorzainen dohainak

Sorzainen bilzarre handi zen, dohainen banakatzearen egiteko, hogeitaur orenetan iaoak ziren haur sortu-berri guzien artean.

Halabeharraren noizpaiteko Ahizpa alditsu hek oro, bozkarioaren eta oinazearen Ama bitxi hek oro, biziki ezberdinak ziren : batzuek itxura ilun eta muttur zuten, bertzek eroxka eta maltzur ; batzu gazteak, beti gazte izanak, bertzeak zaharrak, beti zahar izanak.

Sorzainetan sineste duten aita guziak ethorriak ziren, bakoitza bere haur sortu-berria besoetan.

Dohainak, Antzeak, Ustegabe onak, Gertaldi ezin garhaituak auzitegiaren ondoan metatuak zauden, sariak tauladan bezala, sari banakatze batean. Berezia zena, Dohainak etzirela indar baten ordaintzeko da, baina osoki alderantziz oraino bizi izana etzenari eman garazia bat, haren zoria muga zezakeen garazia bat eta haren zorigaitzeko bezenbat zorioneko ithurburu bilaka zaitekeena.

Sorzain gaixoek bazuten zer egin ; ezen galdatzalen jendea handia zen, eta ararteko mundua, gizonaren eta Jainkoaren artean jarria, gu bezala Aroaren lege laztagarriaren menean baita, eta haren ondore mugagabenean, Egunak, Orenak, Minutak, Zekundak.

Egia erran, minixtro batzu entzunaldi egun batean bezain urduri, edo « Mont-de-Piété » izeneko mailegutegiko langileak bezala herriko besta egun batek hartze urruak haizu uzten dituenen. Uste dut ere artetan erloiaren orratzari so egiten zutela gizon epaileak bezain ezin egonean, goizetik bere alkietan, ezin dagoketelarik auhariaz, etxekoez eta bere xapina maitez amets egin gabe. Baldin bada, naturaz gaineko justizian, lehiatze 'ta ustegabetik zerbait, ezkaitela harri batzuetan berdin izan dadin ere gizonenean. Guhaur ere, gertaldi hortan, juje zuzengabeak ginitazke.

Beraz egun hartan eginak izan ziren bitxi bezala har zaitezkeen zenzugabekeria batzu, Sorzainen jite berezi betierekoa, burukeria izaiteko orde, zuhurtzia baliz.

Horrela otanaz bezala fortunaren bereganatzeko indarra familia biziki aberats bateko ondoko bakarrari emana izan zizakon, hunek, garitaterako gogorik batere gabe izanez, ez eta ere biziko ontasun agerienendako gutziarik, behar baitzuen berantago bere miliunez handizki eragozpenean izan.

Horrela emanak izan ziren Ederraren eta Bothere poetikoaren amorioa bere ofizioz harrigilea zen erromes ilun baten semeari, etzezazkeelarik, edozein moldez, bere haurreria lastimagarriaren antzeak lagun, ez beharrak arin.

Ahatzi dautzuet erraitea banakatze hori, ospeko aldi horietan, dei egiterik gabe dela, eta dohain bat ere ezin daitekeela ez onhar.

Sorzain guziak zutitzen ari ziren, ustez eta bere lana egina; ezen eskaintzekorik batere etzen gehiago gelditzen, gizaki xeheria horri botatzeko emaitzarik batere, gizagaizo bat, sal-erosle behartu ttipi bat, uste dut, jeiki zenean, eta hurbilena zuen Sorzainari hunen lanho kolore orotako zaiatik lotuz, egin baitzuen :

« He ! anderea ! ahazten gituzu ! ene ttipi hau gelditzen da oraino ! Eniz jeusendako jina izan nahi. »

Sorzaina eragozpenean izan zatekeen ; ezen etzen *ezer* gelditzen. Ordu zeno orhoitu zen bizkitartean lege biziki ezagun batez, nahiz bekan erabilia, naturaz goitiko munduan, jainkoaizun ezin hunki horietaz, gizonaren adixkide eta usu haren tirrietara jautsi behar dutenetaz, hala nola Sorzainak, Laminak, Arrobioak, Basandereñoak, Basamutilak, Nizkak, Urandere eta Urmutilak, - erran nahi dut horrelako aldietan, emaitzekoak agortuak direnean, Sorzainer uzten baitaue oraino bertze baten, gainerateko eta ohigabeko baten emaiteko ahala, berehala moldatzeko asmamen aski baduen ber alta.

Sorzain onak ihardetsi zuen beraz, bere lerroari zoakon lardetasun batekin : « Hire semeari emaiten dakeat... emaiten... bertzer *laket izaiteko Dohaina !* »

« Baina laket nola ? laket izan ?... laket izan zergatik ? » galdegin zuen hisituki botikari xipiak, hain ohikoak diren arrazoinkari hetarik baitzatekeen, Zentzugabearen arrazoinera goititzeko ahal gabeko hetarik.

« Hala baita ! hala ! » ihardetsi zuen Sorzainak haserreturik, hari bizkarra itzuliz ; eta berriz bere lagunuen multzora joanez, erraiten zauen : « Zer diozue Frantzes xipi handiuste hortaz, oro argitu nahi duena, eta semearendako emaitzarik

hoberena ukanik, galde egiteko ausartzia baitu oraino eta Ezin-ukatuaren eztabatzekoa ? »

## XXI

### Tentamenduak Edo Eroz, Plutuz eta Loria

Bi Satan ezin ederragoek eta Debrusa batek, ez gutiago ohigabekoa, igan dute, barda, lo datzan gizonaren ahuleziari Ifernuak hartarik jaukitzen diren mailaldea, eta segetuz harekin harremanetan jartzen direna. Eta ethorri zaizkit lorioski ene aitzinean emaitera, taulada batean bezala zutik. Edertasun ifernutar batek bazarion hirur izaite horietarik, horrela agertzen baitziren gauko zola ilunean. Itxura hain burgoi zuten eta menperatzale, nun lehenbizian egiazko hirur Jainkoendako hartu bainituen.

Lehen Satanaren aurpegia sesu dudazko batekoa zen, eta bazen ere, haren soinaren inguruetan, Bakuz zaharren guritasuna. Haren begi eder ahultzera emanek, margo ilunaran eta nahasi batekoak, baziduriten briolet oraino ekaitzaren nigar phizuez bete batzu, eta haren ezpain erdi-idekiek lurruntxi bero batzu, hetarik usain-oneria bateko hats ona jalgitzen baitzen ; eta hasperen bazagien aldi oroz, mamutxa muxketatu batzu argitzen ziren, hegaldatur, haren hats sutsuan.

Haren gorrindolezko soinazpikoaren ingurua hartzen zuen, gerriko moldez, suge argi orotako batek, burua goitituz, begi itxindidunak amultsuki haren gana itzultzen zituela. Gerriko bizidun hortarik dilindan zauden, edari gaizkorrez bete bottoila batzuekin aldizkatuz, ganibet dirdiratu eta barbereriako tresna batzu. Esku eskunean bazadukan bertze bottoila bat barnekoa gorri argi batekoa zuena, eta iragarkitako hitz bitxi hauk zituena : « Edazue, hau ene odola da, phizkarri hoberena » ; ezkerrean arrabit bat atseginen eta oinazen aldatzeko baliatzen zukeena, eta akelarreko gauetan bere erotasuneko khotsuaren hedatzeko.

Haren aztal-beharri beratzen inguruan herrestan zauden urrezko gatina baten erhaztun hautsi batzu, eta hortik heldu zizakon ahalgeak lurrera begien behehitizera bortxatzen zuenean, urgulurekin behatzen zauen oinetako azkazaler, harri ongi landu batzu bezala dirdiran eta leun.

So egin zautan bere begi lastimatu ezin konsolatuekin, hetarik baitzarion mozkorreria sarkor batek, eta mintzo kantari batekin erran : « Nahi baduk, nahi baduk, arimen jaun eginen haut, eta gauza biziaren nagusia izanen hiz, zizelkaria buztinaz izan daitekeen baino ere gehiago ; eta hire baitarik jalgitzeko atsegina, beti berphizten, ezagunen duk, bertzetan sartuz heure bururaren ahazteko, eta hire gana bertze arimen ekharr-araztekoa heurearekin bat egiterano. »

« Esker handi ! izaite puxkileria horietaz zer egin eztiat, ezpaitikee ni gaizo hunek baino gehiago balio. Nahiz ahalge zenbait badiatan orhoituz, jeus eztiat ahatzi nahi ; eta ezpahindutan ezagutzen ere, mustro zaharra, hire mixteriozko ganibeteria, hire bottoila dudazkoak, oinak trabatzen dauzkaten gatinak, hire adixkidantzaren behargabeak aski argitzen ditien itxurapen batzu dituk. Atxizkik hire emaitzak. »

Bigarren Satanak etzituen ez hoin itxura aldi berean tragikoa eta irrikoa, ez egin-molde sarkor hoin ederrak, ez eta edertasun beratzen usainondu hori. Gizon zabal bat zen, begirik gabeko aurpegi lodi batekoa, zorro phizua izterren gainera baitzagokon, eta larrua urreztatu eta marrazkitua zuena, larrantzadura batez bezala, orotako miseriaren molde ainitzak itxuratzen zituzten izaite xipi higokor eli batez. Baziren gizon xipi mehakoil batzu bere nahitara itze batzuetan dilindatzen ; baziren kurlo txar mehe batzu, haien begiek othoitzez amuina galdatzen baitzuten esku daldaradunek ere baino hobeki ; eta ere ama zahar batzu ilhorkin batzu ekhartzen zituztela bere diti ahituer lotuak. Bazen oraino bertze ainitz.

Satan lodiak ukabilaz joiten zuen bere sabel neurrigabekoa, handik jalgitzen baitzen burdin-kalaxka luze 'ta ozen bat, giza-mintzo ainitzek bazegiten auhen nahasi batean bururatzen zena. Eta irriz ari zen, bere hortz andeatuak ozarki erakutsiz, gaitzeko irri zozo batean, herri orotako gizon batzu bezala sobera ontsa auhalduak direnean.

Eta horrek erran zautan : « Eman dezakeat guzia ukaiten duena, guzia balio duena, guzia ordaintzen duena ! » Eta bere zorro izigarrian jo zuen, horren oiharzun ozenak egin baitzuen haren elhe arruntaren argipena.

Burua nardaturik itzuli nuen, eta ihardetsi : « Eruk, ene gozameneko, nehoren miseriaren beharretan ; eta eztiat, hedatzeko paper batean bezala, hire larruan erakutsiak ditukan zorigaitzek iluntzen ditikan aberastasunik. »

Jainkosa aldiz, gezur bat nerrake ezpanu aithortzen lehen ikuspenean gozagai bitxi bat aurkitu naukola. Gozagai horren mugatzeko, jeusi enezakoke erkida beherapenean diren emazte biziki eder batzuenari baino hobeki, haien ederrak baitaduka eraikuntza aurdikien edertasun sarkorra. Itxura aldi berean manukaria

zuen eta arinegia, eta haren begiek, nahiz joak, bazuten indar lillugarri bat. Gehienik ohartu nindakona, haren mintzoaren mixterioa izan zen, hartan aurkitu baintuen « kontralto » goxoenen orhoitzapena eta aguardientaz gelditu gabe ikuziak diren zintzurren erlastura.

« Nahi duka ene botherea ezagutu ? » erran zuen jainkosa aizunak bere mintzo xoragarri eta bitxiaz. « Entzuk ! »

Eta ahoratu zuen gaitzeko trompeta bat, xingolaztatua, xirulaki bat bezala, munduko egunkari guzietako izenburuez, eta, trompeta hortarik, ene izena oihukatu zuen, horrela airean zehar joan baitzen ehun mila ortzantzen harrabotsarekin, eta boboril urrunenaren oiharzunak errepikaturik itzuli baitzizatan.

« Debrua ! egin nuen, erdi garhaitua, horra balios dena ! » Baina emazkar lilluragarria hobeki ikertuz, ezagutzen nuela iduritu bezala zizatan, ene ezagutzako frikun batzuekin dringatzen ikusirik ; eta tutaren soinu erlatsak ekharri zautan beharrietarano trompeta zirtzildu baten nik dakita zein orhoitzapen.

Hortakotz ihardetsi nuen, ene erdainu guziarekin : « Habil ! enun egina izendatu nahi eztinatan batzuen ohaidearekin ezkontzeko. »

Segur, banuen hoin uko egite bihoztunaz burgoi izaiteko dretxoa. Baina, zorigaitzez, iratzarri nintzan, eta indar guziak utzi ninduen. « Egiaz, egin nuen neure baitan, ontsa phizuki lokhartua ninzatekeen horrelako arranguren ukaiteko. Ha ! berriz itzul ahal balaite iratzarria nizanean, enezake hoin beratzarena egin ! »

Eta mintzo goraz hel egin nauen, barka zezataten othoiztuz, neure buruaren desohoratzea behar izanen zen bezenbat eskainiz haien fagoren merezitzeko ; baina azkarki laidoztatuak nituzkeen, ehoiz ezpaitira berriz itzuli.

## XXII

### Ilunabarra

Eguna badoa. Jabaldura handi bat egiten da eguneko lanak akhitu dituen izpiritu gaizoen baitan ; eta haien gogoetek hartzen dituzte orai ilunabarraren margo samur nahasiak.

Bizkitartean mendiaren gainetik heldu zata ene galeriara, arratseko hedoi argalen artetik, orro handi bat, molde orotako oihu eli batez egina, aireak harmonia

ilun batera aldatzen duena, goiti doan itsasaldiarena edo atzartzen ari den ekaitz batena bezala.

Zein dira arratsak ezitzen eztituen zorigaitzekoak, gauaren erortea hartzen baitute, hala nola huntzak, akelarre baten seinaleak? Uhuria ilun hori heldu zaiku mendi gainean jarria den eritegi beltzetik; eta, arratsean, pipatuz eta ibar handiaren atsedinari beha, hango etxe andanako leiho bakoitzak baitio: « Hemen bakea da orai; hemen familiako bozkarioa! », haizeak gain hartarik ufutzen duenean, ene gogamen ustegabetua leria dezaket ifernuko harmonien ihakin hortaz.

Ilunabarrak asalda-arazten ditu eroak. – Orhoit niz ukan ditutala ilunabarrak osoki eritzen zituen bi adixkide. Batek orduan adixkidantzako eta jendetasunezko arau guziak galtzen zituen, eta gaizki ari zizakon, basa bat bezala, lehenbiziko aurkituari. Ikusi dut ostatu bateko mahizainari burura hauteko oilasko baten botatzen, uste baitzuen hartan nik dakita zein izkirio bitxi bazakusala. Arratsak, atsegin barnatuen aitzin-bidaria, gauza hoberenak andeatzen zauzkon.

Bertze bat, handi-nahi gaitzitu bat, eguna beheiti zoan arau, saminago bilakatzen zen, ilunago, kitzikalariago. Egunaz oraino urrikaltsu eta jendekina, arratsean etzuen barkatzerik; eta haren ilunabarreko ohidura gaixtoa etzen bakarrik bertzen gainera, baina berera errabiatuki erortzen.

Lehenbizikoa eroturik hila da, bere emaztea eta haurrak ezin ezagutuz; bigarrenak badaduka berekin betiereko gaitzaldi baten khexua, eta errepublikek eta printzek eman dezazketen ohore guzietz sarizatua baliz ere, uste dut haren baitan ilunabarrak phitz lezakeela oraino asmamenezko laudorio batzuen gutizia sutua. Gauak, haien gogoetan bere ilunbeak ezartzen zituelarik, enean argia emaiten du; eta, nahiz ezten arrazoin berak bi ondorio kontrako emiaten dituela ikustea gauza bekana, hortaz beti gogoetatua izan niz eta khexatua.

Oi gaua! oi ilunbe goxatzaleak! barneko jei baten seinalea zirezte enetako, antsia batetik arintzea! Ibarretako bakartasunean, hiri-nagusi bateko itzulika harritsueta, izarren dirdiran, gabargien phindartzean, jainkosa Libertatearen su-ikusgarria zirezte!

Ilunabarra, zein ezti ziren eta goxo! Hedoi-ertzean oraino herrestatzen diren leinuru gorraitek hala nola egunaren azken hatsa gauaren hertsatze garhailearen azpian, karriketako argien su gorri nahasi batekoek sortaldeko azken lorietan, Orienteko urrunetarik esku ezin ikusi batek ekharr-arazten dituen oihaleria phizuek, badidurite biziko oren ospekoetan gizonaren bihotzean guduka ari diren sendimendu ezberdinak.

Balidurike oraino jantzarisen arropa bitxi hetarik bat, gaza argal ilun batek uzten baititu artetik ikustera zaia distiratu baten aberastasun eztituak, orai beltz hunen azpian iragan goxoa agertzen den bezala ; eta urrez eta zilharrez daldaratzen diren izarrek, hetaz ihautua baita, itxuratzen dituzte asmamenaren suak, ezpaitira Gauaren dolu barnatuan baizik ontsa phizten.

## XXIII

### Bakartasuna

Gazetalari gizatiar batek baderrata bakartasuna gizonarendako gaixto dela eta bere aburuaren azkartzeko, aipatzen ditu, sineskabe guziek bezala, Elizako Aiten elheak.

Badakit Debrua badabilala gogotik leku agorretan, eta erahiltzeko eta lizunkerriako Gogo miragarriki sutzen dela leku bakartietan. Baina izan laiteke bakartasun hori elizatekeela lanjeros bere tirriez eta ametseriez jendeztatzen duten arima auher eta bidez galduendako baizik.

Segur da hitzuntzi bat, atsegin orotako gorena pheredikategi edo taulada baten gainetik mintzatzea duena, Robinson-en irlan osoki ero bilakatzeko irrisku handitan lizatekeela. Eztauzkot ene gazetalariari Crusoe-ren bertute bihoztunak batezpada eskatzen, baina galdegiten dut bakartasunaren eta mixterioaren maitaleak eztitzan ogendunetako sala.

Badira, gure arraza elhasturiari emanetan, gaztigu gorena narda gutiagorekin onhar lezaketenak, urkabearen gainetik hitzaldi jori baten egitea haizu baldin balute, Santerre-ren atabalek elhea ordugabetarik motz lezeeten beldur izan gabe.

Eztitut urriki, asmatzen baitut haien hitzaldi ixurtzek emaiten dezteetela bertze batzuek ixiletik eta bere baitan sartzetik hartzen dituzten atseginen berdinak ; baina gutiesten ditut.

Oroz gainetik nahi dut ene gazetalari madarikatuak utz nezan ene gostura jostatzen. « Ehoiz eztuzu bada, - erraiten dauta, sudur mintzo biziki apostoliko batekin, - zure gozamenen uzitzeko beharra senditzen ? » Ikusazu jeloskor xotil



hori ! Haren atseginak gutiesten ditutala badaki, eta badator enetan sartu nahiz, besta-nahasle higuna !

« Bakarrik egon ahal ez izaiteko zorigaitz handi hura !... » dio nunbait La Bruyère-ek, jendaldean bere buruaren ahaztera lasterrez doazin haier ahalge emaitako bezala, bere buruen ezin jasaiteko beldurrarekin behar bada.

« Abantzu zorigaitz guziak gure gambaran egoiten ez jakitetik heldu zazku », dio bertze zuhur batek, Pascal-ek, uste dut, bere baitan sartzeko gelara deituz zoriona mogimenduan bilatzen duten erotu horiek oro, eta, *anaietasunezkoa* izenda nezakeen bere buruen saltze batean, mende huntako hizkuntza ederra erabili nahi baldin banu.

## XXIV

### Langaiak

Bazion bere baitan, parke handi bakarti batean zabilala : « Zein ederra lizateken gorteko jantzi margoz nahastekatu eta ospatsu batean, arrats eder bateko aroan, palazio bateko mail harbizizkoen jausten, soropil handi eta urtegien aitzinean ! Ezen badu jitez printzesa baten itxura ! »

Berantago karrika batean iragaitean, marrazki grabatu saldegi baten aitzinean gelditu zen, eta, kartoin batean tropiketako eskualde bat bazerakusan baten edireitean, erran zuen bere baitan : « Ez ! enuke haren bizi maiteaz palazio batean jabetu nahi. Ezkira *etxean* izanen. Bertzela ere harresi urrez ihaurtu horiek elezakete leku bat utz haren iduriaren ezartzeko ; galeria ospedun horietan xoko bat ezta etxeko etxeko egoiteko. Zinez, *hor* lizateke egon behar biziko ametsaz gozatzeko. »

Eta, marrazkia begiez xeheki ikertzen zuen batean, bere baitan jarrikitzen zuen : « Itsasoaren bazterrean, zurezko etxola eder bat, izenak ahatziak dezteetan zuhatz bitxi dirdiratu horiez inguratua..., airean, usain xoragarri bat, ezin erran bat..., etxolan, arrosa eta musketa usain on azkar bat..., urrunago, gure etxalde xipiaren gibelean, uhainaldiak leriitzen dituen untzi-haga buru batzu..., gure inguruan, itzalkariak irazten duten argi gorraxtak hartua duen gambararen haraindian, zareta frexkoz eta lore burxoragarriez aphainduaren, rokoko portuges bateko alki bakar batzu, zur phizu ilun batezko batzuekin (han atsedan har bailezake

hain geldi, hain ontsa aireztatua, tabako arinki lobelarreztatua pipatuz !), jobaltaren haraindian, argiaz mozkortu xorien harramantza, eta emazte xipi beltzen kalaka..., eta, gauaz, ene ametsen laguntzale izaiteko, zuhatz musikarien, filao trixten kantuaren pleinua ! Bai, egiaz, *hor* da bada bilatzen nuen igurumena. Zer egiteko dut palazioz ? »

Eta urrunago, ibilgune handi batean hara zoala, ostatu garbixka bat aurkitu zuen, han, indiana margo orotako erridau batzuek alaitzen zuten leiho batetik beheiti so zauden bi buru irrikor. Eta berehala : « Gogoia – erran zuen bere baitan, - ibilkari gaitza ukan behar duket, joiteko hain urrun hain hurbil dutanaren bila. Atsegina eta zoriona edireiten den lehenbiziko ostatuan dira, ustegabeko ostatuan, atsegin goxoz hain emankor denean. Su handi bat, faianzeria argi batzu, auhari bienarteko bat, arno azkar bat, eta ohe zabal-zabal bat mihise apur bat latz baina frexko batzuekin ; hoberik zer ? »

Eta etxera sartzean, Zuhurtziaren aholkuak eztirelarik kampoko biziaren burrumbez ithoak, erran zuen bere baitan : « Ukan ditut egun, ametsetarik, hirur egoitza, atsegin berdina eman baitautate. Zergatik bortxa ene soina lekuz aldatzera, arima hoin arinki bidaiatzen zautanean ? Eta langaien egiteak zer balio du, langaia bera aski den atsegina denaz geroz ? »

## XXV

### Dorothea ederra

Iguzkiak hiria lehertzen du bere argi zuzen izigarriaz ; ondartza lilluragarri da eta itsasoko miraila dirdiran. Mundua harritua lazoki erortzen ari da eta etzanaldi egiten, herio goxagarri mota bat den etzanaldia hartan lo egileak, erdi atzarririk, bere ezeztatzearen atseginak jastatzen baititu.

Dorothea bizkitartean, iguzkia bezala azkar eta urgoi, aitzina badoa karrika hustuan, zero neurrigabearen azpian oren hortan bizidun bakarra, argian badagiela orbain beltz dirdiradun bat.

Aitzina doa, bere soin-enbor hain mehea guriki leriatur hanka hain zabalena gainean. Zetazko zaia tinkiak, kolorez argi eta gorraxtak, hauste bizi bat

egiten du haren larruaren ilunean eta zuzen-zuzena moldatzen dauzko soinara luzea, bizkar bildua eta ugatz xorrotxa.

Ekitako gorriak, argia iraziz, aurpegi ilunera egozten dauko bere leinuruen thindu odoldua.

Duen adats neurrigabe abantzu urdinaren phizuak gibelera baderamako buru hain beratza itxura garhaile nagi bat emanaz. Dilindako phizudun batzuek segeretuki gurguriatzen dute haren beharri pollitetan.

Noiztenka itsas-haizeak goititzen dauko airera zaiaren izkina eta zango dirdiratu miragarria erakusten ; eta oinak, Europak erakustetxetan hesten dituen harbizizko jainkosen oinen idurikoa, bere moldea zuzenki uzten du ondartz arinean. Ezen Dorothea hain handizki da kriketa nun miretsia izaiteko atseginak gainditzen baitu haren baitan emazte liberatuaren urgulua, eta, nahiz libro den, oinetakorik gabe dabil.

Horrela badoa aitzina, neurtuki, bizitzeaz zorionean eta irriño xuri batez irriz, urrundik ikusten balu bezala airean bere urratsa eta ederra leinuratzen dauzkon mirail bat.

Ausikitzen dituen iguzki-pean zakurrak berak oinazez intziraka daudenean, zer arrazoin azkarrek derama bada horrela Dorothea nagia, burdin-horia bezain eder eta hotza ?

Zergatik du bere etxola xipi hain aphainki antolatua utzi, han lore 'ta zaretek gastu gutiz andere-saloin oso bat baitagite ; han hainbertze atsegin hartzen baitu orraztatzen, pipatzen, bere buruaren airezta-arazten edo lumaz aphaindu aireztatzen mirailan berari behatzen, itsasoak, hortik ehun urratsetan ondartzaz joz, haren ametseria nahasier laguntza azkar berdin bat badagien bitartean, eta burdinazko eltzeak, hartan irrisa eta zafranarekilako karamar egosari bat ari baita, igortzen dauzkolarik, korrarearen zolatik, bere usainon phizkarriak ?

Hitza hartua duke aitzindari gazte zenbaitekin, hunek, ondartz urrun batzuetan, entzuna baitu Dorothea aipatuaz mintzatzen. Huts egin gabe, othoiztuko du, jende lañoak, Operako dantzaldia nola den erran dezon, eta galdeginen hara onthusik joan daitekeenez, igandeko jantzetara bezala, han Kafresa zaharrak berak mozkor bilakatzen baitira eta bozkarioz erotzen ; eta ere Parisko andere eder guziak hura baino ederrago direnez.

Dorothea orotaz miretsia da eta maitatua, eta zorion osoan lizateke ezpaliz piastra piastren gainean metatzera bortxatua hameka urte dituen, eta ja zohitua, eta hain ederra den ahizpa xipiaren berrerosteko ! Hortara helduko dateke, Dorothea

ederra : haurraren nagusia hain da zikoitza, zikoitzegia diruen edertasunaz bertze baten senditzeko !

## XXVI

### Behartuen begiak

Ha ! jakin nahi duzu zergatik zitutan egun hastiatzen. Horren entzutea eni zuri argitzea baino nekeago izan zaizuke ; ezen, uste dut, emaztetan aurki daitekeen hartze gabeko behazun ederrena zira.

Elgarrekin egun luze bat iragana ginuen laburra iduritu zizatana. Elgarri ontsa hitzemana ginuen gogoeta guziak bienak ukanen ginituela, eta gure bi arimek hemendik goiti etzutela bat baizik eginen ; - berri denik ezer ez tuen ametsa, ororen buruan, hau ezpada, gizon guziek amestua izanik ere, batek ez tuela gauzatu.

Arratsean, apur bat akitua, jarri nahi ukan zinuen edandegi berri baten aitzinean karrika handi berri-berri baten izkina bazegiena, hunek, oraino legarrez bete-betea, bere ospe bururatugabeak lorioski erakusten baitzituen. Edandegiak dirdiratsen zuen. Gazak berak hastapeneko sukar hura hedatzen zuen, eta bere indar guziaz aritzen zituen xuriz dirdiran zauden harresiak, mirailen oihal lilluragarriak, xiri eta harlatxen urreak, hedekilako xakur batzu bazeramatzaten nerabe matela biribilduak, andereak ukabilaren gainean zadukaten mirotzari irriz, ninfak eta jainkosak buruan fruitu, orhaki, basa-ihizikiekin, Hebe 'ta Ganymede batzu besoa luzatuz anfora xipi hormakidunaren eskaintzen edo hormaki nahastekatuekilako harrixut iduri kolore bietakoaren ; ixtorio guzia eta mithologia guzia tripuntzikeriaren zerbitzuan ezarriak.

Gure aitzinean zuzen, galzadan, berrogei bat urteko gizon gaizo bat bazagon zutik, aurpegia akitua, bizarra urdintzen hasia, esku batez bazadukala mutiko xipi bat eta bazekarrela bertze besoan ibiltzeko ahulegi zen haurño bat. Sehiaren lana egiten zuen eta haurrer arratseko airea harr-arazten. Guziak phildetan. Hirur aurpegi horiek ezin gehiago serio ziren, eta sei begiak edandegi berriari itzatuak zauden miresmen berdin batekin, baina adinaren araura.

Aitaren begiek zioten : « Zein ederra den ! zein ederra ! iduri du munduko urre guzia harresi horietan jartzera jina dela. » - Mutiko xipiaren begiek : « Zein

ederra den ! zein ederra ! baina bakarrik gu bezalakoak eztiren jende batzu sartzen ahal diren etxea da. » Xipienaren begiak aldiz, sobera lilluratuak ziren bozkario zozo eta barnatu batez bertze gauzarik erraiteko.

Kantu egilek diote atseginak arima ontzen duela eta bihotza guritzen. Arrats hartan kantuak arrazoin zuen, nihuri zoatanean. Enintzan bakarrik begi familia hortaz hunkia, baina sendi nintzan gure baso eta pitxerrez, egarria baino handiagoz, apur bat ahalgetua. Ene behakoak zuren gana itzuli nituen, maite maitea, hetan *neure* gogamenaren irakurtzeko ; zure begi hain eder eta hain bitxiki eztietan murgildu nintzan, zure begi ñabarretan, Burukeriaz beteak eta Ilargiaz esondatuak, erran zinautanean : «Jende horiek ezin jasanak ditut bere begi athe handiak bezala idekiekin ! Etzinezakea edandegiko nagusia hemendik urrun-araz ditzan othoitz ? »

Hain da elgar entzutea neke, aingeru maitea, eta gogamena hain entzun-araz ezina, elgar maite duten jenden artean ere !

## XXVII

### Heriotze heroiko bat

Fancioulle jostakin miragarri bat zen, eta abantzu printzearen adixkidetarik. Baina ofizioz irri egin-arazteari emanak diren jendendako, gauza seriosek badituzte erakartasun hilgarri batzu, eta, nahiz aberriaren eta libertatearen ideiek komedialari baten buru-munak osoki har ditzatela bitxi iduri datekeen, egun batez Fancioulle sartu zen aitorenseme khexatu batzuek moldatua zuten zimarkuan.

Orotan badira gizon ongi-egile batzu printzeak aurdiki eta, gizarte bat, huni galdegin gabe, lekuz aldatu nahi duten omere iluneko jende horiek gobernuari salatu nahi dituztenak. Delako jaunak hartuak izan ziren, Fancioulle ere, eta hiltzera segurki hitzemanak.

Gogotik sinets nezake printzea abantzu gaitzitua izan zela jazartuen erdian bere komedialaria aurkituz. Printzea etzen bertze bat baino ez hobea ez gaitzagoa ; baina sendikortasun gehiegitu batek, aldi ainitzetan, bere berdin guziak baino abreago eta tiranikoago bilakatzen zuen. Ederlanen maitale amorratua,

bertzela ere ezagutzale hauta, atsegale egiazki ezin ase azen. Gizonen eta moralaren aldera guti axolatua, bera zinezko edergilea, aspetzea ezpada etzuen etsai lanjerosik ezagutzen, eta munduaren tirano horri ihes egiteko edo horren garhaitzeko egiten zituen indar bitxiak erakarriko zaukoten segurki, ixtoriogile biphil baten ganik, « mustro » izengoitia, haizu izana baliz, haren lurretan, bakar-bakarrik atseginera eta ustegabetzera – atseginaren molde xorrotxenetarik baita – etzeraman edozein gauzaren izkiriartzea. Printze horren zorigaitz handia nehoiz etzuela bere jeinuarendako aski zabala zen antzoki bat ukan ahal zen. Neron gazte batzu badira muga hertsiegietan ithotzen ari baitira, eta heldu diren mendeak egonen baitira betikotz haien izena eta gogo ona ezagutu gabe. Probidentzia zuhurtzia gabeak emanak zauzkon huni bere Estatuak baino handiagoko antzeak.

Entzun zen bapatez soberanoak jazartu guzier garazia eman gogo zauela ; eta erran horren ithurburua ikusgarri handi baten iragartzea izan zen, hartan Fancioulle-ek behar baitzuen bere egitaldi hoberenatarik bat eman, eta han behar baitzituen ere izan, zioten, aitorenseme kondenatuek ; printze laidoztatuak, gaineratzen zuten gogo arinek, eskuzabaltasunerako zituen ixurien seinale ageria.

Gizon jitez eta nahiz hoin bitxiaren aldetik, oro gerta ahal zaitekeen, bertutea bera, urrikalmendua bera, oroz gainetik ustegabeko atsegin batzu hor aurkituak izan ahal balitu. Baina nik bezala arima bitxi eta eri horren barnatasunak zilatuak ahal zituztenendako, itxura biziki gehiagokoa zen printzeak nahi zuela hiltzera kondenatua zen gizon batek antzokiko zituen ahalen neurriaz jujatu. Aldia erabili nahi zuen *baitezpadako* abantailekoa zizakon entsegu zikologiako baten egiteko, eta phorogatu edergile baten ahal ohikoak norano izan zaitezkeen hartan zen izanara ohigabekoaz andeatuak edo aldatuak. Hortik hara, bazena haren ariman urrikalmendurako xede guti edo aski hartu bat ?

Azkenean, egun handi hura jinik, gorte xipi horrek bere ospe guziak erakustera eman zituen, eta asmatzea neke lizateke, ikusia ukan gabe, Estatu xipi bateko jende abantailduak, atherabide mugatu batzuekin, egiazko ospakizun bateko zenbat mirazko gauza erakuts dezakeen.

Hori bietan egiazkoa zen, lehenik hedatua zen aberatseriaren xoragarriaz, gero eratxikia zizakon moraleko balio mixteriozkoaz.

Fancioulle jauna ezin hobea zen bereziki egitaldi mutu edo hitz gutirekilakoetan, lehen-lehenak baitira biziko mixterioaren itxuratzeko gaia duten iduripenezko drama horietan. Tauladan sartu zen arinki eta errextasun oso batekin,

horrek azkartzera ekharri baitzuen, ikusle noblen baitan, eztitasuneko eta barkamenduko gogoia.

Komedialari batez erraiten denean: «Horra komedialari on bat», erabiltzen da komedialariaren gibelean oraino jendea bera asmatzera uzten dela entzun-arazi nahi duen itzuli bat: erran nahi da antzea, indarra, nahia. Bada, komedialari bat hel balaiteke erakutsi behar duen personaiari doakonaz, aro zaharreko gizaiduri hoberenak, mirakuluz bezala bizi direnak, erne, ibilki, ikusle, ederraren ideia orotako eta nahasiaren aldera lizatezkeenak izaitera, hori, dudarik gabe, gertaldi berezi bat lizateke 'ta osoki ustegabekoa. Fancioulle-k egin zuena, arrats hartan, betegina izan zen, ezpaitzaitkeen sinets etzela bizia, izan zaittekeena, egiazkoa. Jostakin hura joaiten zen, jiten, irriz ari zen, nigarrez, daldaran, buru inguruan urre-korona ezin hautsi batekin, guziendako ezin ikusia, baina nik ikus nezakeena, hartan nahasten baitziren edergintzako arraiak eta martiraren loria. Fancioulle-ek sartzen zituen erokeria urragarrietarano, nik dakita zein garazia bereziaren bidez, jainkozkoa eta naturaz gainekoa. Luma daldaratzen zata, eta beti hor den bihotz-hunkitze baten nigarrak heldu zazta begietara zueri arrats ezin ahatzi horren erakustera entseatzen ari nizanean. Fancioulle-k phorogutzen zautan, ara ezin ihardoki, ezin ukatu batez, ederlanak bademan zoramena bertze edozein baino gaiago dela lezeko lazten gordetzerako; eta jeinuak komedia joka dezakeela hilhobiaren hegian hilhobi horren ikustea debekatzen daukon bozkario batekin, galdua baita hilhobi eta hondamen orotako gogoia baztertzen duen parabisu batean.

Hor ziren ikusle guziek, izan zatezkeen bezain soraiotuak eta arinak izanik ere, laster jasan zuten edergilearen nagusitasun osoa. Nehor etzen gehiago egon herioaz, doluaz, ez gaztigu bortitzez ametsetan. Bakoitza utzi zen, khexurik gabe, bizi den ederlaneko egintza nagusi batek badematzan atsegin ainiztuetara. Bozkarioaren eta miresmenaren jauzteak etxearen gangak aldi andana batez inharrosi zituzten ortzanz jarraiki baten gemenarekin. Printzeak berak, zoratua, esku zartak nahasi zituen bere gortekoenekin.

Bizkitartean, argi zakusan begi batendako, haren zoramena etzen nahastekatzerik gabekoa. Bere tirano botherean garhaitua sendi zena? Bihotzen laztatzeko eta gogoen zurruntzeko zuen antzean aphaldua sendi? Horrelako aieruak ez osoki phorogatuak, baina ez osoki ezin phorogatuak ere, gogotik iragan zizaztan printzearen aurpegiari beha nindagolarik, hartan histura berri bat gehitzen baitzizakon ohiko historari, elhurra elhurrari egiten den bezala. Ezpainak gero eta gehiago tinkatzen ari zizazkon, eta begiak bekaizkeriaren eta gorromioarena

bezalako barneko su batez argitzen, bere adixkide zahar, jostakin bitxiaren antzeak, herioa hoin ontsa irriegangarri egiten zuenarenak, esku zartatzen zituen bitartean. Ordu batez, ikusi nuen Haren Goitasuna gibelean xuxen zuen nerabe xipi baten beharrira gurtzen, eta hari mintzatzen. Haur xipi ernearen begitartea irriño batez argitu zen ; gero bizi-bizia joan zen printzearen egongiatik, eginbehar lehiatu baten betetzeko bezela.

Zenbait minuta berantago xixtu zorrotz, luze batek moztu zuen Fancioulle bere jokaldi hoberenetarik baten erdian, eta urratu zituen aldi berean beharriak eta bihotzak. Eta ustegabeko gaitzespen hori jalgia zen salako gunetik, haur bat bazoan lasterrez barnebide batera, irri gorde batzuekin.

Fancioulle-ek, inharrosia, ametsaren erdian atzarria, lehenik begiak hetsi zituen, gero abantzu berehala berrideki, neurririk gabe handituak, ahoa ideki ikharan hats hartzeko bezala, apur bat aitzinera egin haldamaldaka, apur bat gibelera, eta gero taulen gainera hil-hotza erori zen.

Ziztuak, ezpata bezain laster, burregoa egiazki gabeturik utzi zuena ? Printzeak berak asmatua zuena bere amarruaren indar hiltzale guzia ? Dudan egoitea haizu da. Urrikitu zena bere Fancioulle maite ezin berdinduaz ? Horren sinestea ezti da eta zuzen.

Aitorenseme ogendunak komediaren ikusteaz azken aldikotz gozatuak ziren. Gau berean bizitik ezabatuak izan ziren.

Geroztik, ihakintzale batzu, zuzenki estimatuak, jin dira ...ren gorte aitzinean jokatzera ; baina bat ezta izan Fancioulle-ren antze lilluragarriez orhoit-arazi duenik, ez eta haren *fagore* berera igan denik.

## XXVIII

### Diru falsua

Tabako bulegotik urrutzen ari ginela, ene adixkideak bere diru xehea arthoski berezi zuen : barneko motxaren ezkerreko sakelan urre xipi batzu sartu zituen ; eskunekoan, zilhar xipi batzu ; galtzen ezkerreko sakelan, sos lodi andana bat, eta azkenean, eskunekoan, arthoski ikertua zuen bi liberako zilhar bat.

« Banakatze bitxia eta zehatza ! » egin nuen neure baitan.



Bere kaxketa ikharan aitzineratu zaukun behartu bat aurkitu ginuen. – Jeus eztzagut begi othoizle horien elhe mutua baino khexagarriagorik, baitaduzkate aldi berean, irakurtzen badakien gizon sendikorrarendako, hainbertze lañotasun, hainbertze gaizki. Sendimendu nahasietako barnatasun horri hurbil den zerbait edireiten da azotutzen diren zakurren begi nigarra dariotenean.

Ene adixkidearen eskaintza enea baino biziki gotorragoa izan zen, eta erran naukon: « Arrazoin duzu; ustegabetua izaiteko atseginarene ondotik, ezta norbaiten ustegabetzea baino handiagorik! – Diru falsua zen », ihardetsi zautan gostuan, bere eskuzabaltasunaz desenkusatzeko bezala.

Baina ene buru-muna ezteusetan, beti bi orenetan eguerdiren bila (zer antze akhigarriko emaitza egin dautan naturalezak!), sartu zen bapatez gogoeta hau: horrelako eginara bat, ene adixkidearen aldetik, etzela desenkusagarri gizagaizo horren bizian gertakari baten sortzeko gutiziaz baizik, behar bada ere eskale baten eskuan diru falsu batek eman-araz dezazkeen, gaizkor ala bertze, ondorioen ezagutzekoaz. Etzaithekeena diru egiazkoetan xeha? etzezakeena ere presondegirat ereman? Ostaler batek, okin batek, behazunez, preso harr-araziko zuen behar bada diru falsulari edo diru falsu barreatzale bezala. Eta berdin-berdina sos falsua izan zaitezkeen, diru-jokolari xipi behartu batendako, egun zenbaiteko aberastasunaren hazia. Eta horrela ene ametsa bazoan bere bidean, adixkidearen izpirituari hegalak eman ez eta gerta zaitezkeen guzietarik jin zaitezkeen ondorio guziak asmatuz.

Baina hunek ametseria moztu zautan bapatez ene hitz berak errepikatuz: « Ba, arrazoin duzu; ezta uste duena baino gehiago eman ez gizon baten ustegabetzea baino atsegin eztiagorik. »

Begien zolarano so egin naukon, eta harritia izan nintzan haren begiak lañotasun ezin ukatu batez dirdiran zaudela ikusiz. Orduan argiki ikusi nuen nahi ukanak zituela aldi berean garitatea eta irabazte on bat egin; berrogei sos eta Jainkoaren bihotza irabazi; parabisua gastu gutiz ukan; azkenean gizon garitatetsu baten aipamena urrurik bildu. Abantzu barkatu naukon arestian haren egiteko gai uste nuen gozamen gaixtoaren gutizia; ohargarri, berezi aurkituko nuen behartuen irriskuan ezartzeaz josta zadin; baina behin ere eztaukot bere karkularen ezteuskeria barkatuko. Nehor ezta gaixto izaitiaz desenkusagarri, baina hala dela jakitean bada merezimendu zerbait; eta bizioetan ezin ordainduena zozokeriaz gaizki egitea da.

## XXIX

### Bihotz oneko jokolaria

Atzo, karrika handiko jendetzearen artean, beti ezagutu nahi ukana nuen Izaite mixteriozko batez doi-doia hunkia senditu niz, berehala ezagutu bainuen, nahiz enuen ehoiz ikusia. Bazatekeen haren baitan, ene aldera, nahikaria berdin bat, egin baitzautan, iragaitean, begi kheinu errankor bat hari obeditzera lehiatu bainintzan. Oharpenekin jarraiki nindakon, eta laster jautsi nintzan lupeko egoitza batera, lilluragarria, han dirdiratzen baitzuen Parisko egoitza goragokoetarik batek behazun hurbil bat eskain elezakeen aberatseria batek. Hain usu zilo ospedun haren ondotik iragan ahala nintzala sartzeari ohartu gabe bitxi iduritu zizatan. Hor bazabilan aire hautuko bat, nahiz burura joiten zuena, abantzu ordu berean biziko itsuskeria akhigarriak ahatz-arazten zituena ; dohatsutasun ilun batez hats-hartzen zen, « lotoz » jalek ukan zuketenen berdintsua, betiereko arratsalde bateko leinuruek argitzen zuten irla xoragarri batean leihorreratuz, bere baitan sortzen senditu zutenean, ur turrusta eztiki airos batzuen soinu lokartzaletan, bere etxajainkoen, emazten, haurren ehoiz ez gehiago ikusteko gutizia, eta itsasoko uhain goren gainera nehoiz ez igaitekoa.

Baziren hor ederza gaizkor bat bazerakusaten aurpegi bitxiekilako gizon eta emazte batzu, jadanik ikusiak nituela iduritzen baitzizatan ezin orhoit nindaitekeen aro eta herri batzuetan, eta anaietasunezko sendimendu bat eman-arazten baitzautaten, ohian ez ezagunaren ikustean sortzen den beldurra baino lehen. Edozein moldez mugatu nahi banu haien behakoen errankortasun berezia, banerrake nehoiz enuela ikusi aspertzearen laztaz eta bizi senditzeko gutizia betierekoaz gemen gehiagorekin dirdiratzen zuten begirik.

Ene ostatzalea, eta ni, jadanik, jartzean, bi adixkide zahar eta oso ginen. Jan ginuen, mota orotako arno ohigabekoetarik neurririk gabe edan, eta, gutiago ohigabekoa ezten gauza, baziduritan, oren andana baten ondotik, enintzala hura baino mozkorrago. Bitartean jokoak, gizonaz gaineko atsegin horrek, aldi bat baino gehiagotan moztuak zituen gure edanaldi usuak, eta erran behar dut jokotua eta galdua nuela arima, zatiz estekatua, axolagabe eta arintasun handiz. Arima hain da gauza ezin hunkia, hain usu debaldekoa, eta batzuetan trabagarria, nun ezpainuen

ukan, galtze hortaz, ene ikustaldietako karta ibilaldi batean galdua ukan baldin banu baino sendimen apur bat gutiagokoa baizik.

Luzaz zigarro batzu erre ginituen haien gustu eta usain berdin gabeak arimari baitemote ezagutu eztiren herri eta zorion batzuen mina, eta, atsegin hautuko horietaz xoratua, ausartu nintzan, gustuko izan etzizakola iduritu etzuen extekotasun batekin, kopa gainerano bete bat hartuz erraitera : « Zure osagarri betikoari, Akher zaharra ! »

Solastatu ginen ere munduaz, haren egiteaz eta geroko suntsitzeaz ; mendeko ideia handiaz, aitzinatze 'ta hobegarritasunaz, eta, orotara, giza-hanturaren molde guziez. Gai hortaz, Haren Goitasuna etzen irri-solas arin eta ezin ukatu batzuetan ixiltzen, eta mintzo zen gizonetako hitzlari aipatuenetarik baten baitan ediren eztutan erraiteko goxatasun eta atheraldietan gelditasun batekin. Argitu zautan lehenik gizonen buru-munez orai arteo jabetuak ziren filosofia moten arrazoingabetasuna, eta onhartu zuen ere funtsezko erregela batzuen eni segetuan erraitea, ezpaitzata haizu horien abantailen eta ezagutzaren nehoi salatzea. Etzen molde batez ere deitoratu munduko alde guzietan gozaten duen aipamen gaitzaz, segurtatu zautan, berak ere, gehienik nahi zuena *sineskeriaren* suntsitzea zela, eta aithortu etzela, bere bothereari zoakonaz, aldi bakar batez baizik beldur izan, pheredikari bat entzun zuen egunean, bertzeak baino xotilagoa, pheredikategitik erraiten : « Anaie maiteak, ehoiz etzazuela ahatz, argien aitzinatzeaz mintzatzen entzunen duzuelarik, debruaren amarru ederrena zuer horrelakorik eztela sinets-araztea dela ! »

Hitzaldilari aipatu horren orhoitzapenak ereman ginituen naturalki akademien gaira, eta ene mahikide bitxiak erran zautan etzuela, ainitzetan, erakaslen lumaren, hitzaren eta konzienziaren argitzea gutiesten, eta bilkura akademikoetan abantzu beti han izaiten zela.

Hoinbertze ongi-eginez sustaturik, galdatu naukon Jainkoaren berririk bazuenez, eta berriki ikusia zuenez. Ihardetsi zautan, halako trixtezia batez nahasia zen axolagabe batekin : « Elgar agurtzen dugu aurkitzen girenean, baina bi aitorenseme zahar bezala, jendetasun jitezko batek lehengo gorromio batzuen orhoitzapena osoki ahatz-araz eztauetenean. »

Dudagarri da Haren Goitasunak hoin entzunaldi luzea hilkor laño bati ehoiz eman daukonez, eta sobera egoiteaz beldur nintzan. Azkenean, argi-hastearen daldarak berinak zuritzen ari zituenean, personaia aipatu hark, jakin gabean haren loriako lanean ari diren hanbat poetek eta hanbat filosofoek kantatu dutenak, erran

zautan : « Nahi dut nitaz orhoitzapen on bat atxik dezazun, eta phorogatu nahi dautzut Ni, hain gaizki aipatua nizana, batzuetan *debru on* bat nizala, zuen itzuli hautetsi batez baliatzeko. Zure arimaz egina duzun galtze ezin erremediatuzkoaren ordaintzeko, zoria zurekin izan baliz irabaziko zinuen joko-saria emaiten dautzut, erran nahi dut Unhadura, gaitz bitxi horren arintzeko eta garhaitzeko ahala, zure eritasun guzien eta aitzinamendu ezteus guzien ithurburua baita. Gutizia bat eztuzu nehoiz moldatua ukanen, horren asetzera nik lagundu gabe ; zure lagun arrunten errege izanen zira ; lausenguz eta adorazionez ere hornitua ; zilharra, urrea, diamantak, mirazko palazioak, zure bila ethorriko dira eta onhar ditzazun othoiztuko zituzte, zuk haien irabazteko indar bakar bat egin gabe ; aberriz eta eskualdez aldatuko zira burutik iraganen zaizun bezain usu ; atseginez mozkortuko zira, akhidurarik gabe, beti bero den eta han emaztek lorek bezain usain ona duten herri xoragarri batzuetan, - eta bertze, eta bertze... », zuen gaineratu zutituz eta ni irriño on batekin agurtuz.

Hoin bilzarre handiaren aitzinean neure buruaren aphaltzeko beldurra izan ezpaliz, jokari bihotz oneko horren oinetara gogotik eroriko nintzan, bere eskuzabaltasun ez entzunaz eskertzeko. Baina emeki emeki, utzia ukan nuen ondoan, mesfidanza ezin sendatua golkoan berriz sartu zizatan ; enintzan gehiago hoin zorion mirazkoaren sinestera menturatzen, eta, etzatean, ohidura zozo baten ondarraz oraino ene othoitzaren egitean, erdi-lo batean errepikatzen nuen : « Jainkoa ! Jaun Jainkoa ! *debruak* hitzeman dautana atxik dezan egizu ! »

## XXX

### Soka

Edouard Manet-i.

« Lilluramenak – erraiten zautan adixkideak - , behar bada, gizonek elgarren artean edo gauzekin dituzten loturak bezain ezin khondatuak dira. Eta lilluramena ezeztatzen denean, erran nahi da izaitea edo gauza gutarik kampo den bezala dakusagunean, sendimendu bitxi batek hartzen gitu, erdia urrikiz

ametsetakoa ezeztatu delakotz, erdia berri zaukunaren, gauza denaren aitzinean ustegabe goxagarriz. Zerbait baldin bada agerian dena, arrunta, beti berdina, eta den hartaz enganatua izan eztaitekeena, ama baten maitasuna da. Maitasunik gabeko ama baten asmatzea berotasunik gabeko argi baten egitea bezain neke da ; ama batek, bere haurraz ari denean, egiten dituen egintza eta elhe guzien emaita maitasun horren gain ez ote da beraz osoki zuzen ? Eta bizkitartean, ixtorioño hau entzun ezazu, hor lilluramen ezin ohikoago batez bereziki hatzemana izana bainiz.

« Ene margolaritzako ofizioak nahi du bidean eskaintzen zaztan begitarter, aurpegier beha dezeetan ohartuki, eta badakizu zer atsegina hartzen dugun bizia begietara bertze gizonendako baino bizidunago eta errankorrago egiten daukun dohain hortarik. Bizi nizan auzoalde baztertuan, hartan soropilezko eremu zabal batzuek berexten baitituzte oraino eraikuntzak, usu haur bati beha nindagon haren begitarte suharra eta ernea bertze guziak baino gehiago gustatu baitzizatan berehala. Aldi bat baino gehiagotan enetako geldirik jarri da, eta aldatu dut noiz bohamu xipi, noiz aingeru, noiz mithologiako Maitasunetara. Ekharra-azti dauzkot erromesaren arrabita, Pasioneko Elhorri Korona eta Itzeak, eta Eroze-en zuzia. Hartu nuen azkenean muttiko horren ernetasunean atsegin hain bizi bat, egun batez aitamer, jende behartu batzu, eskatu bainauen utz zezataten, ontsa jantziko nuela hitzemanen, diru zenbait emanen naukola eta ene pinzelen garbitzeaz eta komisionen egiteaz bertze nekerik ez galdeginen. Haur hura, ikuzirik, gozagarri bilakatu zen, eta ene etxean zeraman bizia parabisu bat iduritzen zizakon, etxeko atherbe gaixtoan jasanen zuenaren aldean. Erran behar dut bakarrik gizon xipi hark batzuetan ustegabetu ninduela bihotz-ilundura goiztiarreko gaitzaldi batzuek eta berehala erakutsi zuela azukarrerien eta edariendako gustu neurrigabekoa ; hainbertzetarano nun egun batez ikusi nuenean nik usu erasiaturik ere, mota hortako ebaste xipi bat eginga zuela oraino, aitamen etxera itzul-arazteaz mehatxatu bainuen. Gero athera nintzan, eta ene egitekoek aski luzaz etxetik kampo atxiki ninduten.

« Nolakoak etziren izan ene lazta eta ustegabea, etxera sartzean, behakoa jo zautan lehenbiziko gauza ene gizonttoa izan zenean, biziko lagun ernea, harmairu hunen oholetik dilindan ! Oinek zola abantzu hunkitzen zaukoten ; kadera bat, oinaz urrundua zukeena, haren ondoan aurdikia zagon ; burua soingainera behehitua zizakon ; begitarreak, hantua, begiek, zabal-zabala idekiak behako geldi laztagarri batekin, bizi zelako iduripena eman zautaten. Haren jaustea etzen uste dukezun bezain lan errexa izan. Azkarki gogortua zen jadanik eta banuen higundura ezin argitu bat bapatean lurrera erortzen uzteko. Guzia behar zen beso batez atxiki, eta,

bertze besoko eskuaz, soka moztu. Baina hori egin eta, etzen oro egina ; mustro xipia estekagailu biziki mehe batez baliatua zen haragietan barna sartua baitzizakon, eta behar zen orai, haixtur mehe batzuekin, soka bilatu hanturaren bi alderdien artean, lephoaren laxatzeko.

« Ahatzi dautzut erraitea heiagoraz bizi-bizia ari izana nintzala ; baina auzo guziek etzuten ene laguntzera jin nahi ukana, hortan gizon zibilizatuaren ohidurer jarraikiz, ehoiz ezpaitu nahi, nik dakita zergatik, urkatu baten egitekoetan sartu. Azkenean mediku bat ethorri zen, erran baitzuen haurra zenbait orenez geroz hila zela. Gero, ehortzeko buluzi behar ukan ginuenean, gorputza hanbatetarano zen gogortua nun, zango-besoan higi-arazteaz etsituak, soinekoen ekhentzeko urratu eta moztu ukan behar baiginituen.

« Komisariak, ixtripua zuzen zen bezala erran behar ukan bainaukon, bazterrez so egin zautan, eta erran : « Horra ilun dena ! » ogengaber ogenduner bezala beldur emaitako gutizia ahitu eta ofizioko ohidura batek iduriz sustaturik.

« Lan bat zen egitekoa gelditzen : aitamak abisatu behar ziren. Oinek eninduten hara ereman nahi. Azkenean kuraia hori ukan nuen. Baina, ene ustegabe handian, ama sorgor gelditu zen, nigar batek etzaukon begi bazterra busti. Bitxikeria hori sendi zukeen lazta beraren gain eman nuen, eta erran ezagunaz orhoitu nintzan : « Bihotz-min izigarrienak bihotz-min ixilak dira. » Aitak aldiz, itxura erdi zozotu, erdi ametsetako batekin, hunen erraitea aski ukan zuen : « Ororen buruan, behar bada horrela izaitea hobe da ; gaizkira itzuliko zen ! »

« Bitartean, gorputza ene ohexkaren gainean etzana zen, eta, sehi batek lagundurik, azken antolamenduetan ari nintzan, ama langiara sartu zenean. Nahi zuen, zion, semearen gorputza ikusi. Enezakeen, egia, bere zorigaitzaz burxoratzetik traba eta konsolamendu goien eta azken hori ez onhar. Gero othoiztu ninduen haren haurra urkatua zen lekua erakuts nezon. « Oi ! ez ! anderea, - ihardetsi naukon, - min emanen dautzu. » Eta ene begiak nahigabeen harmairu zorigaitzekoaren aldera itzultzen baitziren, ohartu nintzan, lastaz eta haserrez nahasia zen narda batekin, itzea taulan gelditua zela oraino herrestan zagon soka zati luze batekin. Jauzi nintzan bizi-bizia behargabearen azken hatz horien ekhentzeko, eta leihotik kampa botatzera nindoanean, emazte gaixoa besotik lotu zizatan eta mintzo ezin ihardoki batekin erran zautan : « Oi ! Jauna ! utzatazu hori ! othoi ! othoi ! » Etsipenak, iduritu zizatanaz, hanbat zukeen erotua, nun sendimenduak hartzen baitzuen orai semearen heriotzeko tresnaz baliatua zenarendako, eta atxiki nahi zukeen erlika lazkarri eta maite bat bezala. – Eta itzeaz eta estekagailuaz jabetu zen.

« Azkenean ! azkenean ! guzia egina da. Etzizatan berriz lanari lotzea baizik gelditzen, ohian baino ere zain gehiagorekin, oraino ene burumunetako izurduretan zabilan hil xipi horren apurka haizatzeko, haren itxurak bere begi geldiekin akhitzten baininduen ere. Baina biharamunean eskutitz andana bat ukan nuen : batzu ene etxeko alokarien ganik, bertze batzu auzoko etxetarik ; bat lehenbiziko estaiatik ; bertze bat bigarrenetik ; bertze bat herenetik, eta aitzina horrela, batzu molde erdi-jostakinean, galdearen zintzotasuna azaleko josteta baten azpian gorde nahiz bezala ; bertzeak dorpeki ozarrak eta ortografiarik gabe, baina oro helburu berera, erran nahi da eneganik soka zorigaitzeko eta ongikinaren zati baten ukaitera. Izen emailtan bazen, erran behar dut, gizon baino emazte gehiago ; baina etziren oro, sinetsazu bada, jende-lerro ezteus eta arruntekoak. Eskutitz horiek atxikiak ditut.

« Eta orduan, bapatez, ene buruan argi bat egin zen, eta hartu nuen ama zergatik zen hain atxikia eni estekagailuaren ekhentzera eta hura nola baliatuz zuen konsolatu nahi. »

## XXXI

### Deiak

Larrazkeneko iguzki baten arraiak hartan astira gelditzen zirela baziduriten baratze eder batean, lurraldeak bidaiari bezala urrezko hedoi batzu airean zauden zeru jadanik berdera zoan baten azpian, laur haur eder, laur muttiko, jostatzeaz akhituak iduriz, elgarrekin solasean ari ziren.

Batek zion : « Atzo antzokira ereman naute. Palazio handi eta trixte batzuetan, haien zolan ikusten baitira itsasoa eta zerua, gizon eta emazte batzu, serios eta trixte hek ere, baina orotan ikusten ditugunak baino biziki ederrago eta hobeki jantziak, mintzo kantari batean elhekatzen dira. Elgar mehatxatzen dute, othoizten, lastimatzen dira, eta eskuaz usu zapatzen dute gerrian sartua dadukaten nabala. Ha ! ontsa eder da ! Emazteak etxean ikusten ditugunak baino ontsa ederrago eta handiago dira, eta, nahiz bere begi sartu eta matela sutsuekin itxura izigarria duten, ezin egon da hek maitatu gabe. Beldur da, nigar egiteko gura, eta bizkitartean

gozoki ... Eta gero, bitxiago dena, berdin jantzia izaiteko gutizia emaiten du, gauza beren erraiteko eta egitekoa, eta mintzo berdinarekin elhekatzekoa ... »

Laur haurretarik batek, zekunda zenbait baitzen etzuela gehiago lagunaren hitzaldia entzuten eta so itzatu bitxi batekin zeruko nik dakita zein gunetara beha zagola, erran zuen bapatez : « Behazue, behazue hantxetan... ! *Hura* badakusazuea ? Hedoi baztertu xipi baten gainean jarria da, higitzen den hedoi su koloreko xipi hortan. *Hura* ere, badiduri guri beha dagola. »

« Baina nor bada ? » galdegin zuten bertzek.

« Jainkoa ! » ihardetsi zuen doinu osoki zintzo batekin. « Ha ! ontsa urrun da jadanik ; sarri eztuzue gehiago ikusten ahalko. Bidaian badabilke, ikustaldiz erresumetara joaiteko. Oizue, abantzu hedoi-ertzean den zuhatz lerro hunen gibeletik iraganen da... eta orai ezkiladorrearen gibelera jausten ari ... Ha ! ezta gehiago ikusten ! » Eta haurra luzaz egon zen alde berera itzulirik, gogo-erautzi eta urrikizko itxura ezin erran batek hetan dirdiratzten zuen begiak lurra zerutik berexten duen marran itzatuz.

« Zoroa denetz, hori, bere Jainko, berak bakarrik ikus eztezakeenarekin ! » erran zuen orduan herenak, haren jende xipi guzian ageri baitziren bizi eta ernetasun berezi batzu. « Nik, erranen dautzuet nola gertatu zatan behin ere gertatu etzaizuen zerbait, eta zuen antzoki eta hedoiak baino apur bat ohargarriagoa. – Duela zenbait egun, aitamek ereman naute berekin bidaian, eta, hartan gelditu giren ostatuan ezpaitzen gu guziendako aski ohe, deliberatu da ene neskato zaintzalearen ohe berean etzanan nintzala. » - Lagunak bere ondora ekharr-arazi zituen eta aphilago mintzatu zizeen. – « Zerbait berezi egiten du, zoazte, ez bakarrik etzatea izaiteak eta ohean bere neskatoarekin izaiteak, ilunbean. Ezpainintzan lokartua, jostatu niz, lo zagon bitartean, eskuaren haren besoetara, lephora eta soingainetara emaiten. Besoak eta lephoa bertze emazte guziek baino ontsa lodiago ditu, eta larrua hain du leuna, hain leuna nun iduri baitu eskutitzetako edo zetazko paperra. Hain atsegingarri zizatan nun luzaz jarraikiko bainintzan, ezpaninz beldurtu, lehenik haren iratzarr-arazteaz, eta ere nik dakita bertze zertaz. Gero burua sartu dut bizkarrera jausten zizazkon iletan, khima bat bezain tinki, eta bazuten, segur, baratzekeo liliek orai duten bezain usain ona. Entsea zitezte, ahalko duzuenean, hainbertzeren egitera, eta badakuskezue ! »

Agerpen ezin handiago horren egileak, bere ixtorioaren erraitean, oraino sendi zuen halako harritze batez begiak zabalduak zaduzkan, eta etzatera zoan iguzkiaren arraiek, haren adats gorri harrotuaren gainetik lerratuz, hetan phizten



zuten tirriazko korona sofre-koloreko bat bezala. Errex zen asmatzea horrek etzuela bizia hedoietan Jainkokiaren bila galduko, eta bertze nunbait zuela usu aurkituko.

Laurgarrenak erran zuen azkenean : « Badakizue etxean guti nizala jostatzen ; enaute nehoiz ikusgarrira eremaiten ; ene aitordea zikoitzegia da ; Jainkoa ezta nitaz eta ene aspertzeaz axolatzen, eta eztut neskato ederrik ene lokarr-arazteko. Ainitzetan iduritu zata ene atsegina beti aitzina zuzen joaitea lizatekeela, nora jakin gabe, nehor hortaz griñatu gabe, eta beti herri berri batzuen ikustea. Nehoiz eniz nihun ontsa, eta beti nizanetik bertze nunbait hobeki ninzatekeela uzte dut. Beraz bada, ikusi ditut, auzo herriko azken ferian, bizi nahi nukeen bezala bizi diren hirur gizon. Etzezteete ohartu, zuek. Handiak ziren, abantzu beltzak eta biziki burgoiak, nahiz phildetan, nehoren beharretan ez izaiteko itxura batekin. Zituzten begi ilunak osoki argitu dira musikan ari ziren bitartean ; musika bat hain ustegabegarria nun baitema noiz jantzan artzeko gura, noiz nigarrez artzekoa, edo bien batean egitekoa, eta ero bilaka bailaiteke luzazegi entzuten balire. Batek, bere arrabitean zirika lerra-araziz, bazidurien bihotzmin bat erraiten zuela, eta bertzeak, bere mailuxka jauz-araziz lephotik dilindan zadukan piano xipi baten zurdetan, bazidurien bere lagunaren pleinuaz trufatzen zela, herenak aldiz, noiztenka, bere zimbalak joiten zituelarik bortiztasun izigarri batekin. Hain ziren bere buruez askietsiak, nun bere musika salbaiaren joiten jarraiki baitute, jendea barretua izan zenean ere. Azkenean bere sosak bildu dituzte, phuskak bizkarrean hartu, eta joan dira. Ni, nun egoiten ziren jakin nahiz, urrundik jarraiki nizaie, oihan bazterrerano, han baitut bakarrik orduan hartu etzirela nihun egoiten.

« Orduan batek erran du : « Oihal-etxea hedatu behar dea ? »

« Ez ! alafe ! » ihardetsi du bertzeak, « gaua hain da ederra ! »

“ Herenak bazion irabaziaren khondatzean : « Jende horiek musika eztute senditzen, eta emaztek hartzek bezala jantzatzen dute. Beharrik, ilabetea bururatu baino lehen Austrian izanen gira, han jendalde maitagarriago bat aurkituko baitugu. »

« Hobeki egin ginezake behar bada Espainiara joanez, ezen urtea aitzinatzen ari da ; ihes dagigun euriak baino lehen eta eztezagun zintzurra baizik busti », erran du bertze bietarik batek.

« Guzia gogoan atxiki dut, dakusazuen bezala. Gero edan dute bakoitzak aguardiente baso bat eta lokartu dira, begiak izarretara itzulirik. Ukana nuen lehenik berekin ereman nindezaten othoizteko gutizia eta bere tresnetan joiten ikas zezataten ; baina eniz menturatu, zernahitara deliberatzea biziki neke datekeelakotz

beti, eta ere Frantziatik kampo izan baino lehen berriz hatzemana izaitez beldur bainintzan. »

Bertze hirur lagunek erakutsi zuten itxura guti axolatuak gogora emanarazi zautan muttiko hori jadanik *entzungaitz* bat zela. Ontsa behatu naukon ; bazen haren begian eta bekokian gehienetan atxikimendua urruntzen duen nik dakita zer zorigaitzeko goiztiar, eta enea, zergatik eztakit, sustatzen zuena, hainbertzetarano nun ukan bainuen ephe batez nitaz ezezaguna zen anaia bat banukeelako gogamen bitxia.

Iguzkia etzana zen. Gau ospeduna jarria. Haurrak elgarretarik berexi ziren, bakoitza bazoala, berak jakin gabe, gertaldien eta halabeharren araura, bere zoriaren zohitzera, jendakia hurbiler eskandala emaitera eta loriara igaitera edo desohorera jaustera.

## XXXII

### Ziri xingoladuna

Franz Liszt-i

Zer da ziri xingoladuna ? Moraleko eta poesiako erran-nahiaren arabera, erlisionekeo ikur bat, haren zerbitzariak diren jainkokia ohoratzen duten aphez eta apheztsen eskuan. Baina berez ezta ziri bat baizik, ziri huts bat, aihenetako haga, mahats zurkaitz, idor, gogor eta zuzen. Ziri horren inguruan, itzulikatze molde gabeko batzuetan, adar eta lore jostatzen dira alaiki, batzu malgu eta ihesle, batzu ezkilak edo baso aurdikiak bezala beheiti itzulirik. Eta ustegabetzen duen ospe bat jalgitzen da marra eta margo, ezti ala dirdiratu horien nahasketatik. Elukea iduri marra uztaituak eta ingurubilak agurtzen dutela marra zuzena eta hunen inguruan jantzan ari direla, adorazione ixil batean ? Elukea iduri lore mulko arin horiek orok, kalitza horiek orok, usain on eta margoen jauzte nasaian, fandango miztiko bat emaiten dutela ziri zutaren inguruan ? Eta zein da, bizkitartean, loreak eta mahats-aihenak ziriarendako eginak izan direla erabakitzen ausartuko den zuhurtzia gabeko hilkorra, edo ziria aihenen eta loren ederraren erakusteko estakurua baizik eztela? Ziri xingoladuna zure bikuntasun ustegabegarriaren itxura da, nagusi

indardun eta ohoratua, Ederza mixteriozko eta suharraren Kantari maitea. Ehoiz etzuen Bacchus ezin garhaituak sumindu ninfa batek ziri xingoladuna bere lagun erotuen buru gainean inharrosi zure jeinua anaien bihotzetan dabilazun bezainbat gemen eta arintasunekin. – Ziria zure nahia da, zuzen, bermu eta ezin khordokatua ; loreak, nahi horren inguruan zure oldearen ibiltzea dira ; gai emea arraren inguruan bere itzuli-jauzi loriagarrietan. Marra zuzen eta marra ingurudun, xede 'ta errankortasun, nahiaren idorra, elhearen malgua, helburu bakuna, helbide aldakorra, jeinuaren orobatze bothere guziko ezin hautsia, zein argitzalek du zure uzitzeko eta zure berexteko kuraia hastiagarria ukanen ?

Liszt maitea, lanhoen artetik, pianoek hetan zure loria kantatzen duten eta moldizkitzeak zure zuhurtzia entzun-arazten duen hirien harainditik, nun ere izan ziten, hiri eternaleko ospetan ala Gambrinus-ek konsolatzen dituen herri ameslarietako lanhoetan, goxatasunezko ala bihotzmin ezin erranezko kantu asmatzen, edo paperrari zure gogamen zailenen emaiten, betiereko Atseginaren eta Antsiaren kantaria, filosofo, poeta eta edergile, agurtzen zitut hilezinean !

## XXXIII

### Mozkor zaitezte

Beti mozkorra izan behar da. Guzia hortan da : egiteko bakarra da. Soingainak hausten dauzkitzueten et lurrera gurtzen zituzten Aroaren zama lazkarriaren ez senditzeko, behar duzue gelditu gabe mozkortu.

Baina zertaz ? Arnoz, poesiaz ala bertutez, zuen nahitara. Baina mozkor zaitezte.

Eta batzuetan, palazio bateko mailetan, zuen gambarako bakartasun aspergarrian, atzartzen baldin bazirezte, mozkordura ja xipitua edo ezeztatua, galda ezozue haizeari, uhainari, izarrari, xoriari, erloiari, ihes doan orori, auhenetan den orori, dabilan orori, kantuz ari den orori, mintzo den orori, galda zer oren den ; eta haizeak, uhainak, izarrak, xoriak, erloiak, ihardetsiko dautzute : « Mozkortzeko ordu da ! Aroaran esklabo oinazkatua ez izaiteko, mozkor zaitezte ethengabe ! Arnoz, poesiaz ala bertutez, zuen nahitara. »

## XXXIX

### Jadanik !

Ehun aldiz jadanik iguzkia jalgia zen, dirdiran ala ilundurik, bazterrak doi-doia baizik ikustera uzten ez tiren mainutegi neurrigabeko hartarik ; ehun aldiz bermurgildua zen, phindarretan ala mokhor, arratseko bere mainu neurrigabeen. Bazen egun andana bat izartegiko bertze alderdiari beha egoiten ahal ginela eta haraindietako hizkitegi zerutarra irakur ginezakeela. Eta bidarrietan bakoitza auhenka ari zen eta murmurikan. Erran zaitekeen lurraren hurbiltzeak haien oinazea sumintzen zuela. « Noiz bada », zioten, « utziko dugu uhainaz inharrosia den loaren egitea, guk baino azkarrago gorronkatzen duen haize batez moztuaren ? Noiz jan ahalko dugu bageramatzan ekhai zikina bezain gazitua ezten haragitik ? Noiz egosi ahalko dugu jargia geldi-geldi batean ? »

Baziren etxeko sua gogoan zutenak, bere emazte hitz-jale 'ta murritzez urrikitan zirenak, eta bere haurreria garrasialariaz. Oro hain erotuak ziren lurraren hutsaz, nun, uste dut, belarra ihiziek baino khar gehiagorekin janen zuten.

Azkenean leihor bat iragarria izan zen ; eta ikusi ginuen, hurbilduz, lur ezin ederrago bat zela, lilluragarria. Bazidurien handik biziko musikak murmurika nahasi batean jalgitzen zirela, eta ur bazter hetarik, mota orotako landarez aberatsak, lore 'ta fruitu usain ezin goxoago bat airatzen zela.

Berehala bakoitza bozkariatu zen, bakoitzak bere omore gaixtoari uko egin zaukon. Aharra guziak ahatziak izan ziren, elgarren alderako ogen guziak gogotik ezabatuak, eta gorromioak khe batzu bezala airatu ziren.

Ni bakarrik nintzan trixte, ezin asmatzeko heinean trixte. Bere jainkotasuna ekhenduko zizakon aphez bat iduri, enindaitekeen, samintasun deitoragarri bat gabe, itsaso bere berdintasun izigarrian hain mugagabeki aldakorretik berex, iduri baitu badaduzkala bere baitan eta bere jokoetan, ibilaretan, haserre 'ta irrietan, eta itxuratzen dituela bizi izanak, bizi et biziko diren arima guzien omoreak, agoniak eta gogo-erautziak !

Edertza ezin erkidatu hari goraintzi erraitean, heriotzerano aurdikia sendi nintzan ; eta hartako, ene lagunetarik bakoitzak erran zuenean : « Azkenean ! », enuen oihukatu ahal ukan : « *Jadanik !* » baizik.

Bizkitartean lurra zen, lurra bere harrabots, tirria, errextasun, besta guziekin ; lur aberats eta ezin ederrago bat, agiantzaz betea, bere mixteriozko arrosa eta muxketa usain ona igortzen zaukuna, eta biziko musikak handik maitsasunezko murmurika batean heltzen zizauzkuna.

## XXXV

### Leihoak

Leiho ideki batetik barnera so badagienak eztu nehoiz leiho hetsi batera dagienak bezainbat gauza ikusten. Gandela batez argitua den leiho bat baino gauza barnatuagorik, mixteriozkoagorik, emankorragorik, ilunagorik, lilluragarriagorik ezta. Iguzkian ikus daitekeena berina baten gibelean gertatzen dena baino gutiago ohargarri da beti. Zilo beltz edo argidun hortan bizi da bizia, amets egiten ari, oinazetan egonki.

Hegaztegien uhainetarik haratago, badakusat emazte adineko bat, ja zimurtua, beharra, zerbaitetara beti gurtua, eta nehoiz jalgitzen eztena. Haren begitartearekin, jantziarekin, jestuarekin, abantzu jeusekin, emazte haren bizia berregin dut, edo izaitekotz leienda, eta batzuetan neure buruari khondatzen dut nigarrez.

Gizon zahar behartu bat izan baliz, harena berdin errexki berreginen nuen.

Eta etzaten niz, nitaz bertze batzuen baitan bizi izanik eta sofriturik burgoi.

Erranen dautazue behar bada : « Leienda hori egiazkoa dela segur hiza ? » Zer axola dut nitarik kampo ezarria den egiaz, bizitzen lagundu baldin banau, banizala eta zer nizan senditzen ?

## XXXVI

### Margazkitzeko nahikaria

Zorigaitzekoa behar bada gizona, baina zorionekoa nahikariak urratzen duen edergilea ! Sutan nago hain bekan agertua zatan eta hain laster ihes egin duen anderea margazkitu nahiz, gauak badereman bidariaren gibelean gelditu den gauza eder urrikaltzeko bat bezala. Itzalia dela zein aspaldi duen jadanik !

Ederra da, eta ederra baino ere gehiago ; ustegabegarria. Beltza nasai da haren baitan ; eta gogora-arazten duen guzia gauazkoa da eta barnatua. Haren begiak bi harpe dira hetan dirdiratzan bezala baitu mixterioak, eta haren soak zimiztak bezala argitzen du : jauzte bat da ilunbetan !

Iguzki beltz batekin erkida nezake, izar beltz bat asma balaiteke argiaren eta zorionaren ixurtzen. Baina errexago argizagiaz goga-arazten du, hunek bere eragin beldurgarriaz marratua baituke ; ez eresietako argizagi zuriaz, andere ezkondu berri hotz baten egitea baitu, baina argizagi ilun eta zoragarriaz, gau ortzidun baten zolan dilindan eta lasterrez dabiltzan hedoez bulkatua ; ez argizagi baketsu eta ixilaz gizon garbien loaren ikusle, baina zerutik moztua den argizagiaz, garhaitua eta jazartua, Sorgin thezalierekin idorki bortxatzen baitute belar laztatuaren gainean dantzatzera.

Haren bidar xipian bizi dira borondate zaila eta ihizi hatzemaiteko gutizia. Bizkitartean, aurpegi lotsagarri horren behean, hor sudur zilo higikor batzuek iresten baitituzte ez ezaguna eta ezin egina, jauzten da, garazia ezin erranezko batekin, aho handi, gorri eta zuri, eta ezin goxoagoko baten irria, sumendi bateko alhorrean ideki den lore miragarri baten mirakuluaz amets egin-arazten baitu.

## XXXVII

### **Ilargiaren ongi-eginak**

Ilargiak, burukeria bera baita, leihotik behatu zinan, hire ohakoan lo hindagolarik, eta erran : « Haur hau gustatzen zata. »

Eta guriki jautsi zen hedoeizko bere mailaldetik, eta ixil-ixila berinan hara sartu. Gero etzan zunan hire gainean ama baten samurtasun malguarekin, eta bere margoak hire aurpegian utzi. Ñiñikak hortik musker geldituak zaizkin, eta mazelak, ohigabeki hits. Ikuslari hari behatzean zaizkin begiak hain bitxiki zabalduak ; hain samurki hau zintzurrean tinkatua nun betikotz atxiki baitun nigar egiteko gura.

Bitartean, bere bozkarioaren hedamenean, Ilargiak gamera guzia betetzen zuen, fosforazko aire batean bezala, pozoin argidun batek bezala ; eta argi bizi horrek guziak gogutzen zuen eta erraiten : «Betiereko jasanen dun ene musuaren eragina. Ederra izanen hiz ene moldera. Maite dinatana eta maite nauena maitatuko ditun : ura, hedoiak, ixila eta gaua ; itsas neurrigabe muskerra ; ur moldegabe 'ta molde orotakoa ; han izanen ez hizan lekua ; ezagunen ez hauen maitalea ; lore izigarriak ; amets egin-arazten duten usain onak ; pianoen gainean goxatzen diren gatuak, eta emazteak bezala, mintzo erlastu eta ezti batekin, auhenetan daudenak !

« Eta ene maitalez maitatua izanen hiz, ene gortelariez lausengatua. Gizon begi muskerren erregina izanen hiz, zintzurra tinkatua baitauenat gauazko ene pherekuetan ; itsasoa maite duten horiena, itsaso neurrigabea, harrabostun eta muskerra, ur moldegabe 'ta molde orotakoa, han eztiren lekua, ezagutzen eztuten emaztea, erlisione ezezagun bateko isensu-untziak iduri duten lore gaizkorrak, borondatea uhertzen duten usain onak, eta haien erotasunaren ikurrak diren ihizi basa et' atsegaleak ! »

Eta hortako nun, haur maite gastatu madarikatua, orai hire oinetan etzana, hizan guzian Jainkosa izigarriaren, ugazama gaizkorraren, *ilargijoak* diren guzien amaño pozointzalearen leinuruaren bila !

## XXXVIII

### Egiazkoa zein da ?

Benedicta delako bat ezagutu dut, airea ezin-hobeaz betetzen baitzuen, eta haren begiek hedatzen baitzuten handitasunaren, ederraren, ospearen eta ezin hiltzea sinets-arazten duen ororen gutizia...

Baina mirakuluzko nexka hura ederregia zen luzaz bizitzeko ; nik ezagutua ukan eta zenbait egunen buruan hil da ere, eta nihaurek dut ehortzi, primaderak bere isensu-untzia hil-herrietarano baderabilan egun batez. Nik dut ehortzi, Indiakoak bezalako zur usainondu eta ezin ustelduzko khutxa batean.

Eta ene begiak itzatuak baitzauden ene thesora luperatua zen lekuan, ikusi nuen bapatez hilaren egite berezia zuen jende xipi bat, eta, lur berriki itzulian oinka,

bortiztasun izteriko eta bitxi batekin baziona, irri karkailetan : « Egiazko Benedicta, ni niz ! Ni, ematzar aipatu bat ! Eta hire erotasunaren eta itsutasunaren zigorrez, maitatuko nuk nizan bezala ! »

Baina nik, sumindua, ihardetsi dut : « Ez ! Ez ! Ez ! » Eta ene ezaren hobeki entzun-arazteko, lurra oinaz hain bortizki jo dut, nun zangoa belhaunerano sartu baitzata hil-hobi berrian, eta, otsoa sarean hartua bezala, estekaturik bainago, betiereko behar bada, ametsetakoaren hobian.

## XXXIX

### Zaldi arrazakoa

Ontsa itsusia da. Atsegingarria da bizkitartean ! Aroak eta Maitasunak bere aztaparrez marratua dute eta bortizki erakatsia daukote minuta bakoitzak eta musu bakoitzak zer duten gaztetasunetik eta frexkotasunetik eremaitean.

Zinez itsusia da ; zinaurria, ainharba, nahi baduzu, korphezur ere ; baina ere edaria, larderia, sorginkeria ! oro har, hautekoa da.

Ezin dauko Aroak urratsaren harmonia phindarduna hautsi ez eta soineko egituraren aphaintasun ezin hondatua. Eztauko Maitasunak haur hatsaren goxoa aldatu ; et' Aroak eztauko ereman hartarik usain horailetan Iguzkialde frantzeseko bizitasun debruzko guzia jalgitzen zakon ile-khima nasaia: Nîmes, Aix, Arles, Avignon, Narbona, Tolosa, iguzkiaz benedikatu hiriak, maitale 'ta xoragarri.

Aroak eta Maitasunak auherretan dute hortzikatuz ausiki ; jeus eztute xipitu haren ugatz mutilarakoak, ageri gutian baina betiereko, duen xoragarritik.

Higatua behar bada, ez alta akitua, eta beti bihoztun, gogora-arazten ditu egiazko afizionatuaren begiak ezagutzen dituen zaldi arrazako hek, alokako karrosa bati edo orga phizu bati estekatuak direnean ere.

Eta gero hain da ezitia eta suharra ! larrazkenean maite den bezala maite du ; badiduri neguaren hurbiltzeak su berri bat phizten duela haren bihotzean, eta haren phereku ezti zerbitzariak ehoiz eztute akhigarririk jeus.



## XL

### Miraila

Gizon itsusiz izigarri bat sartzen da eta bere buruari mirailan so egiten du.

- « Zergatik duzu zuhauri mirailan so egiten, eztezakezunez geroz zure burua atsekaberekin baizik ikus ? »

Gizon itsusiak ihardesten dauta : « - Jauna, 89-ko prinzipio hil ezinen araez, gizon guziak dretxoz berdin dira ; badut beraz nihauri so egiteko dretxoa ; atseginekin ala atsekaberekin, horrek eztu ikustekorik neure konzienziarekin baizik. »

Zentzu onaren izenean, arrazoin nukkeen ; baina, legearen izenean, etzen hutsean.

## XLI

### Portua

Portu bat egoitza xoragarria da biziko guduez akhitua den arima batendako. Zeruaren zabalak, hedoiaren eraikuntza geldiak, itsasoaren margo aldakorrak, itsasargien dirdirak, badagite prisma miragarri bat begien jostatzeke gai dena nehoiz akhitu gabe. Untzien itxura lerdenez, bere apaileria nahastekatuan, sagailoak zalantza ezti batean higitzen dituela, on dira arimaren atxikitzeke neurkadaren eta edertasunaren guran. Eta gero, oroz gainetik, halako atsegin mixteriozko eta arixtokratiko bat bada ikusi-nahirik ez handi-nahirik eztuenarendako, ikustegian etzanik ala kaiari ukondo, abiatzen direnen eta itzultzen direnen, oraino nahi ukaiteko indarra, bidaiatzeko ala aberasteko gutizia dutenen harat-hunarat horier guzier beha.

## XLII

### Maitatu batzuen potretak

Gizonen saloin xipi batean, erran nahi da jokotegi aphain bati zatxikakon pipagune batean, laur gizon ari ziren pipatzen eta edaten. Etziren baitezpada ez gazteak, ez zaharrak, ez itsusiak ez ederrak ; baina zahar ala gazte, bazadukaten bozkarioan adineratuen berexgoa ezin ezaguna ezten hura, ezin errana den nik dakita zer hura, trixtezia hotz eta trufari argiki mintzo den hura diola : « Bizi azkarra eremana dugu eta zer maita eta estima ginezakeen bila gabiltza. »

Batek solasa eman zuen emazten gaira. Horren ez aipatzea filosofikoago izanen zen ; baina jende batzu badira ezpaitutze, edan ondoan, solasaldi arruntak gutiesten.

« Gizon guziek, zion hunek, Kerubinoren adina ukana dute : oihanetako jainkosa eskasez, haritzen ondoa, higuntasunik gabe, besarkatzen den aroa da. Maitasunaren lehenbiziko maila. Bigarreanean, hasten da hautatzen. Gogoetatu ahal ukaitea, jadanik jaustea da. Orduan da edertasuna deliberatuki bilatzen. Ene aldetik, jaunak, hoilatzen niz heldua izaitiaz, aspaldidanik, heren maileko urtarora, hartan edertasuna bera ezpaita aski, usain onaz, aphainduraz eta bertze gauzez ezpaldin bada ondua. Baina, bizi guzian, Kerubinoren adinean ezpada, bertze edozein baino sendikorrago izana niz emazten zozotasun nardagarriari, bienartekotasun sumingarriari. Ihizietan maite dutana oroz gainetik, lañotasuna da. Asma ezazue beraz zenbat sofritu dukedan azken maitearekin.

« Printze baten baxtarta zen. Ederra, hori erran gabe doa ; bertzela, zergatik nuen hartuko ? Baina gaitasun goien hori handi-nahi zorigaitzeko eta moldekaitz batez andeatzen zuen. Beti gizonarena egin nahi zuen emaztea zen. « Etzira gizona ! Ha ! gizona baninz ! Gu bietarik, gizona ni niz ! » Horiek ziren kanturik baizik airatzen ikusi nahiko enuen haren ahotik jalgitzen ziren lelo ezin jasanak. Ene miresmena agertzera uzten nuen liburu batez, olerki batez, opera batez : « Uste duzu behar bada hori biziki azkar dela ? zion berehala ; azkartasunean ezagutzen zirea ? » eta arrazoinak emaiten zituen.

« Egun batez ximiari eman da ; hala nola nun geroztik haren ahoaren eta enearen artean berinazko maska bat edireiten bainuen. Horrekin guziarekin, azkarki

mindulina. Batzuetan jestu maitariegi batez bulkatzen baldin banuen, landare killika bortxatu bat bezala ikharatzen zen...

- Nola bururatu da ? erran zuen bertze hiruretarik batek. Etzinitutan hoin pairakorra ezagutzen.

- Jainkoak, egin zuen berriz, eman zaukon gaitzari erremedioa. Egun batez aurkitu nuen indar idealaz amikatu Minerba hura, ene mutilarekin buruz buru, haien ez ahalge-arazteko ixilean gibelatzera bortxatu ninduen egonara batean. Arratsean biak haizatu nituen, lan-sari gibelatuak ordainduz.

- Nik aldiz, egin zuen berriz solasa hautsia zuenak, eztut neure buruaz baizik deitoratu behar. Zoriona etxean bizitzera ethorri zata, eta eztut ezagutu. Fortunak, azken dembora hautan, emana zautan izaitetan eztiena, manukoena eta ekharriena zen emazte bat, eta beti prest ! eta kharrik gabe ! « Ba nahi dut, gozagarri zautzunaz geroz. » Haren ihardespren ohikoa zen. Makilaz eman zinezoke harresi huni edo jargia huni, maitasun bortiztuenaren oldek ene maitearen golkotik egiten zauzkoten baino hasperen gehiago athera baitzinezoke. Urte bat elgarrekin bizi ondoan, aithortu zautan atsegina etzuela behin ere ezagutua. Buruz-buruko gudu ezberdin hortaz nardatu nintzan, eta nexkato berdinek gabeko hura ezkondu zen. Ukan nuen, berantago, haren berrikusteko burukeria, eta erran zautan, sei haur eder erakutsiz : « Ha bada ! adixkide maitea, emazte ezkondua zure maitea zen bezain *neskaso* da ! » Ezer etzen aldatua jende haren baitan. Urriki dut batzuetan : ezkondu beharko nuen. »

Bertzeak irriz hasi ziren, eta heren batek bere aldian erran zuen :

- « Jaunak, ezagutu ditut hetaz behar bada axolatu etzirezten gozatasun batzu. Maitasunean irrieginarri denaz mintzo niz, eta miresmena baztertzen eztuen irrieginarri batez. Ene azken maitea miretsi dut, ustez, zuek zuenak hastiatu ala maitatu dituzuen baino gehiago. Eta guziek nik bezainbat miresten zuten. Ostatu batera sartzen ginenean, minuta zenbaiten buruan, bakoitzak jatea ahazten zuen hari behatzeko. Mutilek berek eta khondu-mahiko andereak gogo-erautzi hedakor hori senditzen zuten bere eginbiden ahazterano. Hots, bizi izan niz zenbait demboraz *bitxikeria* bizi batekin buruz buru. Jaten zuen, hortzekin xehatzen, lehertzen, amikatuki iresten, baina munduan den itxura arin eta axolagabenarekin. Luzaz gogo-erautzian atxiki nau ni ere. Bazuen « Gose niz ! » erraiteko ara ezti, ametslari, angeles eta elaberrietako bat. Eta hitz horiek gau eta egun errepikatzen zituen munduko hortz pollitenak erakutsiz, aldi berean beraztuko et' alaituko baitzinituzten. Fortuna bat egin ahalko nuen ferietan *mustro jale orotako* hura erakutsiz. Ontsa hazten nuen,

eta bizkitartean utzi nau... - Janari saltzale batendako, agian ? – Mota bertsuko zerbaitendako, halako armadaren hornidurako langile batendako, hark dakien joko zerbaiten bidez, emaiten baitauko behar bada haur gaixo hari soldado andana baten jatekoa. Hori dut, bederen, uste ukan.

- Nik, erran zuen laurgarrenak, oinaze itsuski bortitzak jasan ditut eme berekoi bati ohian erasiaz erraiten denaren kontrakoaz. Gaizki ari zirezte ene ustez, hilkor zoriondunegiak, zuen maitalen hutsak deitoratuz ! »

Hori doinu biziki larde batekin errana izan zen, gizon itxuraz ezti eta serio baten ganik, itxuraz abantzu elizatiarra, zorigaitzez begi urdin argi, haien soak « *Nahi dut !* » edo « *Behar da !* » edo « *Eztut ehoiz barkatzen !* » dion begi hetarik batzuekilakoa.

- « Zaintsu ezagutzen zitutan bezala, zu, G..., beldurri et' arinak zirezten bezala, K... eta J... zuek biak, ezagutzen dutan emazte batekin birazkatuak izan bazinezte, edo ihes joanen zinezten, edo hilak izanen. Ni, bizi gelditu niz, badakusazuen bezala. Nik, iraun dut, badakusazuen bezala. Asma ezazue sendimenduz edo karkulazko huts bakar bat egin eztezakeen norbait ; asma jitezko berdintasun lastimagarri bat ; zerbitzazeko axola sinorik ez hanturarik gabeko bat ; ahultasunik gabeko eztitasun bat ; bortizkeriarik gabeko gemen bat. Ene maitasunaren ixtorioak badiduri bururatzetik gabeko bidaia bat mirail bat bezain garbi eta leun den leku batean, burxoratzerano beti berdina, ene sendimenduak eta jestuak oro emanen zituen nihauren konzienziako zuzentasun irkaiztunarekin, hala nola nun ezpainezakeen arrazoingabeko jestu edo sendimendu baten ukaitera mentura, nitarik ezin berexizko itxuraren erasia ixilari berehala ohartu gabe. Maitasuna menpetasun bat bezala iduritzen zizatan. Zenbat zozokeriaren egitea debekatu dautan, ez eginik urriki baitut ! Zenbat zor nik nahigabeen ordaindurik ! Neure erotasun berezitik athera nezazkeen irabazi guziez gabetzen ninduen. Erregela hotz eta ezin iragan batekin, ene burukeria guziak hausten zituen. Laturaren gaintzeko, etzuen, lanjerra urrundu eta, eskerrik nahi. Zenbat aldiz eztut neure burua zaindu haren zintzurrera jauztetik, oihuka : « Eskasa izan hadi bada zerbaitetan, zorigaitzekoa ! atsekaberik eta haserririk gabe maita hezatan ! » Urte andana batean miretsi dut, bihotza herraz beterik. Hortarik hil dena, azkenean, eniz ni !

- Ha ! egin zuten bertzek, hil da beraz ?

- Bai ! etzezakeen horrela iraun. Maitasuna amets gaixto lehergarri bat bilakatua zizatan. Garhaitu ala hil, Politikariak dion bezala, hori zen halabeharrak

hartzera bortxatzen ninduen hautua ! Arrats batez, oihan batean... phutzu baten bazterrean... gogo-ilunduzko ibilaldi baten ondotik, haren begiek zeruaren eztiak dirdiratzen baitzuten, eta ene bihotza ifernua bezain khexu...

- Zer !

- Nola !

- Zer erran nahi duzu ?

- Ezin huts egina zen. Zerbitzari ezin erasiatu baten joiteko, laidoztatzeko edo haizatzeko zuzentasunaren sendimendu sobera banuen. Baina behar zen sendimendu hori jende hark emaiten zautan lazturarekin akomeatu ; hartaz arindu errespetuan hutsik egin gabe. Zer nahi zinuten egin nezan hartaz, *betegina zenaz geroz ?* »

Bertze hirur lagunek behatu zaukoten so nahasi eta doi bat zoratuarekin, hartzen ezpazuten bezala eginez eta erran gabe aithortuz bezala etzutela sendi, hek, hoin egintza gogor bateko ahalik, bertzela aski argitua izanik ere.

Gero botoila berri batzu ekharr-arazi ziren, bizia hoin zaila duen Aroaren hiltzeko, eta hain emeki doan Biziaren lehia-arazteko.

## XLIII

### Tirokari galanta

Karrosa oihan baten iragaiten ari zelarik, geldi-arazi zuen tiro egiteko leku bati hurbil, bala zenbaiten tiratzea gozagarri izanen zizakola erranez, Aroaren *hiltzeko*. Mistro horren hiltzea, eztea bakoitzaren egiteko ohitu eta zuzenena ? – Eta eskua galanki eskaini zaukon bere emazte maite, hauteko eta hastiagarriari, hainbertze atsegin, hainbertze atsekabe, eta behar bada ere bere jeinuaren zati handi bat zor dauzkon mixteriozko emazte hari.

Bala batzuek behar zen lekutik urrun jo zuten ; bat tronaduran sartu zen ere ; eta andere xoragarria eroki irriz ari baitzen, senarraren errebeskeriaz trufatuz, hau haren aldera itzuli zen bapatez, eta erran zaukon : « Behazu pampina hari, hantxet, eskun, sudurra airera baitaduka eta itxura hain handi. Oizu, aingeru maitea, *zu zirela iduritzen zata.* » Begiak hetsi zituen eta tiratu. Pampinak burua garbiki moztua ukan zuen.

Orduan bere emazte maite, hauteko eta hastiagarriaren gana gurtuz, bere Muse ezin hutsegin eta ezin urrikalduaren gana, eta eskua hari errespeturekin apatuz, gaineratu zuen : « Ha ! aingeru maitea, zenbat eskertzen zitutan neure tiro zuzenaz ! »

## XLIV

### **Salda eta hedoiak**

Ene eroxka maite-maiteak auhaltzera bazematan, eta jateko salako leiho idekitik, beha nindagon Jainkoak hedoiekin egiten dituen arkitektura higikorren, ezin hunkiak diren eraikuntza mirazkoer. Eta banion neure baitan, behatzearen artetik : « Lilluramenduzko gauza horiek oro ene maite ederraren, begi muskerrekilako eroxka izigarri hunen begiak bezain ederrak dira, »

Eta bapatez ukaldi bortitz bat senditu nuen bizkarrean, eta mintzo erlats eta xoragarri bat entzun, mintzo izteriko et' aguardientez erkastu bezalako bat, ene maite-maite xipiaren mintzoa, baitzion : « Janen duzua berehala zure salda, hedoi maitale itsusi txarra ? »

## XLV

### **Tiroa eta hilherria**

*Hilherri aitzinean, Edandegia.* « Izen bitxia, - egin zuen bere baitan gure ibilkariak, - baina egarri emaitako ontsa egina ! Segurki, ostatu hunen jabeak Horazio eta Epikuren olerkari jarraileen estimatzen badaki. Ezagutzen duke ere behar bada Egiptiar zaharren xotiltasun barnatua, aphairu onik ezpaitzen haiendako korpezurrik gabe, eta biziaren laburtasuneko ikur zenbait gabe. »

Eta sartu zen, garagarno baso bat edan zuen hilhobien aitzinean, eta zigarro bat emeki erre. Gero, hilherrira jausteko burukeria batek hartu zuen, belarra hain gora baitzen eta gomitatzaile, eta iguzki hain ospedun bat han nagusi.

Alabaina, argiak eta beroak besta zuten, eta bazidurien iguzkia luze-luzea ihaloska ari zela lore mireskarri batzuezko tapizan, suntsitzeaz gizenduak. Biziaren zurrumurru neurrigabe batek betetzen zuen airea, - ezin xipiagoen bizia -, arte berdinetan auzoko tirogune bateko zirtez hautsia, xampañako buxunen jauzteak bezala joiten baitzuten zinfonia eztitu bateko burrumban.

Orduan, buru-munak berotzen zauzkon iguzki-pean, eta Herioaren usain gartsuzko airean, mintzo bat entzun zuen jarria zen hilhobiaren azpitik ahapeka. Eta mintzo horrek zion : « Madarika daitela zuen jo-mugak eta karabinak, bizi harrabostunak, hain guti axolaten baitzirezte hilez eta haien atsedean jainkotarrak ! Madarika zuen handi-nahiak, madarika zuen karkulak, bizi ezin egonak, hiltzeko egintzaren ikastera Herioaren seindutegi ondora heldu zireztenak ! Saria zein irabaz errexa den baldin bazinakite, helburua zein hunki errexa, etzinaitezke hoinbertze neka, bizi langileak, eta gutiago nahas zinezazkete aspaldidanik Jo-mugan eman dutenak, bizi hastiagarriko helburu egiazkoan ! »

## XLVI

### Urre-korona galtzea

He ! zer ! zu hemen, adixkidea ? Zu, leku galdu batean ! zu, gogamen huts edalea, ambrosia jalea ! Egiaz, ene ustegabetzekoa bada hor.

- Adixkidea, zaldiek eta karrosek emaiten dautaten lazta badakizu. Arestian, karrika handiaren iragaiten ari nintzalarik, lehia handiz, eta iztilean jauxika nindoalarik, aldi orotarik batean herioa lauhazkan badatorren nahasketa higikorrean hara, ene urre-korona, mogimendu bizi batean, burutik karrikako iztilera lerratu zata. Biltzeko kuraiarik eztut ukan. Ene ikurren galtzea hezurren hauts-araztea baino gutiago gozagaitz iduritu zata. Eta gero, egin dut neure baitan, zorigaitza zerbaitetako on da. Orai ezaguna izan gabe banabilke, egintza aphaltu batzuetara eman, eta zirtzileria jo dezaket hilkor xoilek bezala. Eta huna hemen, zu iduri iduri, dakusazun bezala !

- Behar zinueke bederen urre-korona hura iragarr-arazi, edo komisarioaz galdegin-arazi.

- Alafe, ez! Ontsa niz hemen. Bertzela ere ohoreak aspertzen nau. Azkenik bozkarioarekin gogutzen dut olerkari gaixto zenbaitek bilduko duela eta ozarki buruan ezarriko. Zoriondun baten egitea, zer gozoa! eta oroz gainetik irri egin-araziko dautan baten! Gogora ezazu X, edo Z! Eztea hala! zein jostagarri izanen den! »

## XLVII

### Andereño Lantzeta

Hiribazterreko burura heltzen ari nintzanean gazaren argi-pean, beso bat senditu nuen enearen azpira eztiki sartzen, eta mintzo bat entzun beharrira erraiten : « Medikua zira, jauna ? »

Behatu nuen ; neska handi bat zen, azkarra, begiak ideki-idekiak, arinki thindatua, ileak bonetaren xingolekin batean airera.

« - Ez ; eniz medikua. Joaitera utz nezazu. – Oi ! ba ! medikua zira. Ontsa badakusat. Etxera zaugi. Nitaz ontsa askietsia izanen zira, zoaz ! – Segurki, ikustera jinen nizazu, baina berantago, *medikuaren ondotik*, debrientxo !... - Ha ! Ha ! – egin zuen beti ene besoari lotua, eta irri karkailetan hasiz, - mediku jostakin bat zira, mota hortako batzu ezagutu ditut. Zaugi. »

Mixerioa azkarki maite dut, beti uste baitut argituko dutala. Andere lagun hartaz eremaitera utzi nintzan beraz, edo izaitekotz ustegabeko asmakari hartaz.

Egoitza gaixtoaren erakustea bazterrera uzten dut ; poeta frantzes ontza ezagutu batzuetan ediren daiteke. Bakarrik, Régnier ohartu etzizakon berezitasuna, baziren mediku aipatu batzuen bizpahirur iduri murruetarik dilindan.

Nola gastatua izan nintzan ! Su handi, arno bero, zigarro ; eta gauza on horien eskaintzean eta berak zigarro bat phiztuz, neska bitxiak erraiten zautan : « Etxean bezala egizu, adixkidea, gostura eman zaite. Ospitalea eta gaztaroko dembora ederra orhoit-araziko dauzkizu. – Ha bada ! ile zuri horiek nun bildu dituzu ? Etzinen horrela, ezta oraino hain aspaldi, L...ren azpiko zinelarik. Orhoit niz zuk zinuela laguntzen operazione larrietan. Horra bada gizon bat mozten, urratzen



eta muxarratzen maite duena ! Zuk zinazkon tresnak eskaintzen, hariak eta idortzeko oihalak. – Eta, operazionea eginik, bazionean urgulurekin, sakel-orenari behatuz : « Bortz minuta, jaunak ! » - Ho ! ni, banoa orotara. Jaun horiek ontsa ezagutzen ditut. »

Ephe zenbait berantago, eni hika mintzatuz, bere leloa berriz hasten zuen, eta erraiten zautan : « Mediku hiz eztea hala, ene gatua ? »

Errepika ezin entzun horrek zangoen gainean jauzi egin-arazi zautan. « Ez ! egin nuen eroturik.

- Barbera beraz ?
- Ez ! Ez ! hiri buruaren mozteko ezpadun ! Emagaldu debru sakratua !
- Ago, egin zuen berriz, ikusiko duk. »

Eta harmairutik paper meta bat atheraz, aro hartako mediku aipatuen potret bildumaz bertzerik etzema, Maurin-ek harmarrazkituak, Voltaire kaian urte 'ta urtez hedaturik ikusi ahal izan baita.

« To ! hau ezagutzen duk ?

- Ba ! X... dun, izena azpian din ere bertzela ; baina nihaurek ezagutzen dinat.

- Banakian ! To ! horra Z..., bere ikastaldian baziona, X...ez mintzatuz : « Arimako iluna aurpegian badakarren mustro hori ! » Hori guzia, gauza batean bertzea etzelakoan aburu bereko ! Nola irri egiten ginian hortaz Medikuntzako Eskolan, lehenago ! Orhoit hiz ? – To, horra K., ospitalean arthatzen zitian jazartuak gobernuari salatzen zitikana. Jazarraldien dembora zian. Hoin gizon ederrak bihotz hoin guti ukaitea, nola datekek ? – Horra orai W., mediku angeles aipatu bat ; Parisera egin dikan bidaian hatzeman diat. Andereño baten itxura dik, eztea hala ? »

Eta sokaz estekatu paketa bat hunkitzen nuelarik, hura ere mahixkan ezarria : « Ago apur bat, egin zuen ; hori, barneko languntzalena duk, eta hau, kampokoena. »

Eta inguruan hedatu zuen margazki meta bat, begitarte biziki gazteago batzu erakusten baitzituzten.

« Berriz elgar ikusiko diagularik, hire potreta emanen dautak, eztea hala, maitea ?

- Baina, erran naukon, jarraikiz, ni ere, neure aburuari, mediku nizala zergatik dun uste ?
- Hain hiz gixakoa eta ona emaztendako !
- Arrazoinkatze bitxia ! egin nuen neure baitan.

- Ho ! Gutu diat hortan huts egiten ; andana ona ezagutu diat. Jaun horiek hain maite ditiat nun, ez eri izanik ere, batzuetan ikustera joaiten bainauek, ikusteko baizik ezpada ere. Badituk hotz-hotza erraiten dautatenak : « Etzira batere eri ! » Baina bertze batzuek ongi hartzen naute, sinoak egiten baiteztauet !

- Eta hartzen ehautenean... ?

- Jainkoa ! *Debalde*tan ikusi ditutalakoz, hamar libera uzten ditiat khebide gainean.

- Hain dira eztiak eta onak, gizon horiek !

- Pitié-ko ospitalean aurkitu diat barneko laguntzale xipi bat, aingerua bezain pollita dena, eta jendetasunekoa ! eta lanean ari, mutiko gaizoa ! Haren lagunek erran diate dirurik etzuela, aitamak jeusik igortzen ahal eztaukoten behartu batzu ditikalakotz. Horrek konfiñxian ezarri nik. Orogen buruan, aski emazte ederra nuk, nahiz ez gazte-gaztea. Erran dakeat : « Ene ikustera haugi, haugi usu. Eta enekin, ez hadila jena ; diru beharrik eztiat. » Baina hartzen duk gauza hori erran daukeatala molde andana batean ; eztaukeat gordin-gordinik erran ; hain nindian haren aphaltzeko beldur, haur maite hura ! – Alta ! sinets hezakea erraitera ausartzen enizan gutizia bitxi bat badiatala ? – Nahi nitek ene ikustera bere esku-zaku eta taulierrarekin ethor ladin, odol apur batekin gainean berdin ! »

Hori erran zuen aire laño-laño batekin, maite lukeen komedialarisa batez gizon batek erran lezakeen bezala : « Eman duzun aldi aipatu hartako jantzia soinean ikusi nahi zitut. »

Nik, hisituz, egin nuen berriz : « Hitan tirria hoin berezi hori sortu zaunan aroaz eta aldiar orhoit haitekeaa ? »

Erran nahi nuena entzun-arazi naukon, nekerekin ; heldu nintzan azkenean. Baina aire biziki trixte batekin ihardetsi zautan, eta ere, orhoitzen nizan bezenbat, begiak bazterrera itzuliz : « Eztakiat... enuk orhoitzen. »

Nolako bitxikeriak eztira hiri handi batean aurkitzen, ibiltzen eta behatzen jakiten den ber ? Bizia mustro ogengabez betea da. – Jauna, ene Jainkoa ! zu, Egilea, zu, Nagusia ; zu Legea eta Libertatea egin dituzuna ; zu, egitera uzten duzun errege, zu, barkatzen duzun jujea ; zu kausaz et' ariaz betea zirena, eta ene izpirituan itsuskeriaren gutizia ezarri duzuna ene bihotzaren aldatzeko, sendatzea lantzeta baten puntan bezala ; Jauna, urrikal zaite, urrikal zaite gizon eta emazte eroez ! Oi Egilea ! mustroak izan daitezke zertako diren badakien bakar Haren begietan, nola egin diren eta nola ez eginak izan zaitezkeen ?

## XLVIII

### Mundutik hara nun nahi

Bizi hau ospitale bat da eri bakoitza ohez aldatzeko gutiziaz hartua dena. Hunek nahi luke berotzekoaren ondoan sofritu, eta horrek leiho aldean senda laitekeela uste du.

Badidurit han enizan lekuan beti ontsa nintzatekeela, eta egoitzaz aldatzeko gai hori ene arimarekin ethengabe eztabadatzen dutana da.

« Erradak, arima, arima gaizo hoztua, zer goga hezake Lisbonan bizitzeaz ? Han aroa bero datekek, sugandila bezala berriz bizkor hindaiteke. Hiri hori ur bazterrean da ; badiote harbiziz egina dela, eta jendeak hain duela landarekia hastio, nun zuhatz guziak errotik atheratzen baitira. Horra ene gostuaren araberako eskualde bat ; argiz eta harrikiz egin eskualde bat, eta ura haien mirailtzeko ! »

Arimak eztu ihardesten.

« Atsedena hainbertze maite dukanaz geroz, higitzen ikustearekin, nahi duka jin Holandan bizitzera, lur dohatsugarri huntan ? Behar bada jostatuko hiz haren iduria erakustokietan usu miretsi dukan herri hortan. Zer goga hezake Rotterdam-ez, hi untzi-hagen oihana maite dukana, eta untziak etxen oinean estekan ? »

Ene arima ixilik dago.

« Batavia-k josta hindezake behar bada gehiago ? Aurki ginezakek ere Europako izpiritua edertasun tropikalarekin ezkondua.

Hitzik ez. – Arima hila ote nuke ?

« Zurrundurako hein hartara eroria hiza bada nun ezpaihiz gaitzean baizik gustatzen ? Horrela baldin bada, ihes badagigun Herioaren idurikoak diren herrietara. – Badakiat zer, arima gaizoa ! Malak eginen ditiaguk Torneo-rako. Goazen oraino urrunago, Baltikako azken burura ; bizitik oraino urrunago, ahal bada ; jar gaiten lur-buruan. Hor iguzkiak ez tik lurra zeharka doi-doia baizik hunkitzen, eta argiaren eta gauaren aldizkatze geldiak ezberdintasuna ekhertzen dik eta handitzen beti berdina, ezteusaren erdi hori. Hor, hartzen ahalko ditiaguk ilunbezko mainu luzeak, artetan ipharreko goiz-argiek igorriko dauzkutek bere arrosa-kolorezko azauak, Ifernuko su-joko baten leinuruak bezala ! »

Azkenean, arima jauzten zata, zuhurtziarekin oihu eginez : « Nora nahi ! nora nahi ! mundutik hara den ber ! »

## XLIX

### Jo ditzagun behartuak

Hamabortz egunez gambaran hetsirik egona nintzan, eta aro hartako liburu modakoez inguratua (badu hamasei edo hamazazpi urte) ; erran nahi dut hogei-ta laur orenetan jenden dohatsu, zuhur eta aberats bilakatzeaz ari diren liburuez. Irakurriak nituen beraz – iretsiak dut erran nahi, - zorion publikoaren eragile horien guzien asmakeria guziak, - behartu guzier esklabo bilaka diten konseilatzen dauetenenak, eta oro errege tronutik aurdiki batzu direla sinets-arazten dauetenenak. – Ezta ustegabekoa edirenen orduan burxorora eta zozotasunera hurbilzen den gogo molde batean baldin banintzan.

Iduritua zizatan bakarrik sendi nuela, ene gogo zokoan hetsia, haien hiztegia berriki irakurria nuen emazteki erran guziak baino goragoko ideia bat. Baina etzen ideia baten ideia bat baizik, zerbait biziki guti argi zena.

Eta jalgi nintzan egarri handi batekin. Ezen irakurgai gaitzen gustu amorratuak sortzen baitu arau berean aire hartzeko eta edateko behar bat.

Edandegi batera sartzeraz nindoalarik, eskelari batek bere xapela eskaini zautan, tronuak uzkailez lezazkeen behako hetarik batekin, izpirituak gauza higitzen balu, eta otanzale baten begiak mahatsak ontzen balitu.

Aldi berean, mintzo bat entzun nuen beharrira ahapetik ari, ontsa ezagutu nuen mintzo bat, orotan lagun dutan Aingeru on batena zen, edo Demonio on batena. Zokratezek bere Demonio ona bazuenaz geroz, zergatik enuke ene Aingeru ona, zergatik enuke, Zokratezek bezala, ene erotasunaren paper ageria, Lélut xotilak eta Baillarger zentzudunak izenpeturik ? (\*)

Ezberdintasun hau bada Zokratezen Demonioaren eta enearen artean, Zokratezena etzizakola mintzo zaintzeko, abisatzeko eta debekatzeko baizik, eta eneak aholku emaita, esondatzea, sinets-araztea onhartzen duela. Zokratez gaizo hark etzuen demonio eragozle bat baizik ; enea baieztatzale handia da, egintzako Demonioa, guduko Demonioa.

Eta bada, haren mintzoak ahapeka hau erraiten zautan : « Bertze baten heineko bakarra, hori phorogutzen duena da, eta libertateko gai den bakarra, haren irabazten badakiena. »

Ordu berean, eskalearen gainera jauzi nintzan. Ukabil ukaldi bakar batez, begi bat hetsi naukon, bilakatu baitzen, zekunda batez, pilota bezain lodi. Azkazal bat hautsi nuen hari bi hortzen phorroskatzen, eta ezpanintzan aski azkar sendi, beratza sorturik eta ukabil jokoan guti ari izanik, berehala zahar haren erahiltzeko, hartu nuen esku batez soinekoaren lephokotik, bertzeaz zintzurretik hatzeman, eta hasi nindakon bizkorki harresi bati kontra buruaren inharrosten. Aithortu behar dut inguruneak lehenik ikertuak nituela begi ukaldi batez, eta egiaztatua herri bazter huts hortan, aski ephe luze batendako, poliziako gizon ororen menetik urrun nintzala.

Gero, bizkarrera igorri ostiko batez, lepusteiaeren hausteko aski indarduna, hiruetan hogeituro urteko gizon hura aurdikia nuela, lurrean zen zuhatz adar gotor bat harturik, jo nuen bizteka bat guritu nahi duten kozinerren gemen hisituarekin.

Bapatez, - oi mirakulua ! bere teoriaren zuzentasuna egiaztatzen duen filosofoaren oi gozamina ! – ikusi nuen hezurreria zahar hura itzultzen, mekanika hoin bereziki andeatuaren baitan nehoiz ere uste ukanen enuen gemen batekin zutitzen, eta, *hitzemaite onekoa* iduritu zizatan herrazko so batekin, gaixtagin okhitua gainera jauzi zizatan, bi begiak ubeldu zauztan, laur hortz hautsi, eta, zuhatz adar berarekin, arraultze bat bezala jo ninduen. – Ene sendagailu gementsuaz, urgulua eta bizia itzuliak nauzkon beraz.

Orduan, kheinu ainitz egin naukon eztabada bururatua bezala nadukala harr-arazteko, eta Athariko zofixta baten satifamenduarekin erran : « Jauna, *ene heinekoa zira !* ene moltsaren enekin uzitzeko ohorea egidazu ; eta orhoit zaite, egiazki philanthropoa baldin bazira, zure lagun guziak behar dituzula balia-arazi, elemosina galdeginen dautzutenean, zure bizkarrean entseatzeko *oinazea* ukan dutan theoriaz. »

(\*) Bi eroetako mediku horiek erakutsi nahi ukana zuten Zokratez Greziako filosofo aipatua eroa zela. (Itzultzalearen oharra)

## L

### Zakur onak

Joseph STEVENS Jaunari (\*)

Eniz ehoiz ahalgetu, ene mendeko idazle gazten aitzinean ere, Buffon-endako dutan miresentzen, baina egun eztut naturaleza ospedunaren margolari horren arima deituko ene laguntzera. Ez.

Ontsa gogotikago Sterne-ri (\*\*) hel egin nezoke, eta erran : « Zerutik jauts hadi, edo Elüseoko alhorretarik ene gana igan, zakur onen aldera gogoaren sustatzera, zakur gaixoen aldera, hire gai den kantu baten moldatzeko, sendimendudun jostakina, jostakin berdinek gabea ! Itzul hadi gerokoen orhoitzapenean beti laguntzen hauen arsto aipatuaren gainean ixtakolok ; eta oroz gainetik arsto horrek ahatz eztezala, ezpainen artetik polliki dilindan, bere makaron betierekoa ! »

Gibelera muse akademikoa ! Jeus eztut nahi sintsa zahar hortarik. Muse etxeokari dut hel egiten, hiritarrari, bizi denari, lagun nezan zakur onen kantatzen, zakur gaixoen, zakur iztilduen, bakoitzak bazterreratzen dituenak, izurritu eta zorrizu bezala, haiekin lagun diren behartuek ezpada, eta poetak, anaietasunezko begiarekin ikusten baititu.

Urrun ! zakur aphaina, laur zangoetako ergel hori, danes, king-charles, oralano ala uxakur, bere buruaz hain xoratua nun ozarki jauzten baita ikuslearen zango edo belhaunetara, gustagarri izanen dela segur bezala, haur bat bezain ezinegona, neska arin bat bezain zozoa, batzuetan mutil bat bezain mokhorra edo ausarta ! Urrun bereziki laur zangoetako suge horiek, hotz-ikharan eta auher, galgame izenekoak, ezpaitadukate bere mutur luzean adixkide baten hatzari jarraikitze aski usnarik ere, ez eta bere buru aphalduan, dominotan jokatzeko adimendurik aski.

Zakurtegira, bizkarkin akhigarri horiek oro !

Itzul ditela bere zakurtegi zetazko eta gosnatuetara ! Kantatzen dut zakur iztildua, zakur egoitzarik gabea, zakur ibilkaria, zakur jauztekarria, haren asmua, behartuarena, bohamuarena eta jokariarena bezala, beharraz miragarriki akulatua baita, ama hain on hortaz, adimenduen zinezko nagusi hortaz !

Kantatzen ditut zakur helgaiztunak, ala hiri neurrigabekoetako izaka bihurdiatuetan badabiltzanak, ala gizon orotaz utziari, begi klixkari eta izpiritudun batzuekin erran daukotenak : « Har nezak hirekin, eta gu bien miseriatik eginen diaguk behar bada halako zorion bat ! »

« *Nora doaz zakurrak ?* » zion lehenago Nestor Roqueplan-ek ahatzia dukeen berrikari-zolako orhoitgarri batean, eta nik bakarrik, eta Sainte-Beuve-ek behar bada, gogoan duguna oraino.

Nora doaz zakurrak, diozue, gizon guti oharkorrak ? Badoaz bere egitekoetara.

Egitekoetako aurkitaldi, amodiozko aurkitaldi. Lanhoan gaindi, elhurrean gaindi, iztilean gaindi, uda-min erretzekoan, euri uharrean, joaiten dira, jiten, ibiltzen, karrosen azpitik iragaiten, kukusok, tirriak, beharrak edo eginbideak sustaturik. Gu bezala, goizik jeikiak dira, biziaren bila edo lasterrez bere atseginetara.

Badira hiri-inguruko hondamendu baten azpian etzaten direnak eta jiten, egun oroz, oren beretan, Erret-Palazioko sukalde athe batera bere xarearen eske ; bertze batzu bortz lekoa baino urrunagotik multzoan lasterrez heldu direnak, hiruretan hogeituro urteko neskaso batzuen garitateak antolatua dauen aphairuaren uztizera, hauen bihotz auherra ihizietara itzulia baita gizon zozok nahi eztutelakotz.

Bertze batzuek, esklabo beltz iheslari batzu bezala, amodioz erotuak, uzten dute, egun berezi batzuetan, bere departamendua hirian lasterkatzera jiteko, oren batez, zakur eme eder baten inguruan, bere jantzian apur bat axolagabea, baina urgoi eta esker onekoa.

Eta orratza bezain xuxen dira, karnetik gabe, notaririk eta sakelakorik gabe.

Ezagutzen duzua Belgika auherra, eta miretsi dituzua, nik bezala, harakinaren, esne saltzalearen, okinaren karrosari estekatu zakur azkar hek, bere erausia irabazlez erakusten baitute zaldiekin zein gehiagokatzeaz sendi duten atsegin urguluduna ?

Huna biga lerro oraino jendetuagokoak direnak. Onhar ezazu hor ezten jauzkari baten gambaran sarr-araz zitzatan. Ohe bat, zur thindatuzkoa, erridaurik gabe, estalgi batzu herrestan eta zimitzez zikinduak, bi lastozko kadera, musikako tresna bat edo bi hautsiak. Oi ! mubleria trixtea ! Baina so egizu, othoi, bi personaia horier, jantzi aldi berean higatu eta ospekoak soinean, ileantzea trobari edo soldado batzuek bezala, sorgin batzuen artharekin zaintzen dutela berogailu phiztuaren

gainean ezteki egosten ari den *izen gabeko lana*, erdian zutik dagola kullera luze bat, hargintza bururatua dela iragartzen duten aireko haga hetarik bat bezala.

Eztea zuzen komedialari hoin gartsuak ezituen bideari lot urdaila salda phizu eta azkar batez galhiatu gabe? Eta eztuzua atsegin apur bat gizagaizo horier barkatuko, egun oroz behar dutelarik jendearen axolagabea jasan, eta zati gotorrena hartzen duen eta berak laur komedialariek baino salda gehiago jaten duen buruzagi bat?

Zenbat aldiz eniz egon, erdi irriz eta bihotza beraztua, laur zangotako filosofo horier beha, esklabo lausengari, manukor edo zerbitzari gartsu, hiztegi errepublikarrak erran bailezazke berdin *laguntariak*, errepublikak, gizonen *zorionaz* axolatuegia, baldin balu zakurren *zorionaren* egiteko astia!

Eta zenbat aldiz eztut gogatu bazela behar bada nunbait (ororen buruan, nork daki?), hoinbertze kuraiaren, hoinbertze pairamen eta lanen sariztatzeko, zakur onendako, zakur gaixoendako, zakur iztildu eta lastimatuendako parabisu berezi bat. Swedenborg-ek dio badela bat Turkoendako eta bat Holandesendako.

Virgiliuz eta Theokritez, bere kantu aldizkatuendako, gasna on baten, egile hoberenaren xirula baten edo ahuntz errape hantu baten beha zauden. Zakur gaizoak kantatu dituen poetak ukan du sarizat margo aldi berean aberats eta higatuarekilako barneko motx bat (\*\*), larrazkeneko iguzkiak gogoratzen dituen, emazte adinekoen ederra eta Dona-Martetako udak.

Villa-Hermosa karrikako edandegian zirenetarik batek eztu ahatziko nolako bizitasunarekin margolaria bere barneko motxaz gabetu den poetaren fagoretan, hain ontsa hartu baitu zakur gaizoen kantatzea on zela eta zuzen.

Berdin, Italiako tirano ospedun batek eskaintzen zaukon Aretin arraroari noiz puñal bat harrieriaz aberastua, noiz gorteko soineko bat, hamalaurkun balios edo olerki trufari bitxi batean truk.

Eta poetak margolariaren barneko motxa janzen duen aldi oroz, gogatu behar du zakur onez, zakur filosofoez, Dona-Martetako udez eta emazte adinekotuen ederraz.

(\*) Joseph Stevens ihizi eta bereziki zakur margolari ezagun Belgikako bat zen. (Itzultzailearen oharra)

(\*\*) Laurence Sterne (1713-1768), Irlandan sortua, eta Angeterrako idazle aipatuenetarik, Frantzian bereziki irakurria XIX-garren mendean; haren liburu ezagunenetan *Tristram Shandy, aitorensemearen bizia et' aburuak* (1760-1767) eta *Sendimenduzko bidaia* (1768). (Itzultzailearen oharra)



(\*\*\*) Baudelaire-k berak ukana omen zuen 1867-ko urrian Joseph Stevens delako margolariaren ganik soinean ikusia zaukon horrelako barneko motx bat. (Itzultzailearen oharra)

## **Azken hitz**

*(Pariseri)*

Bihotza gozorian, igan niz mendi gainera  
Handik ikusten baita hiria bere betean,  
Ospital(e), emategiak, ifernu 'ta galera,

Han itsusi den oro baita lili 'ta loretan.  
Ontsa dakik, oi Satan, en(e) antsiaren nagusi,  
Enindoala nigar hutsalen ixurtzekotan ;

Bain(a) atsegale zahar bat ohaideaz iduri,  
Emagaldu gaitzaz mozkortzeko nahiarekin  
Bere lillur(a) ifernalaz bainu gaztetzen beti.

Noiz oraino lo hagola goizeko mihisekin,  
Ilun, phizu, nekatua, noiz ospez habilala  
Urre hutsez josi diren arratsek(o) oihalekin,

Maite haut, hiri laidagarria ! Gaixtagin ala  
Emagaldu, hor jendaldeak laket eztituen  
Atseginak usurik eskaintzen dituzuela.

#### En 4<sup>ème</sup> de couverture :

Charles Baudelaire-ek (1821-1867) Pariseren poeta izan nahi du, zuen oraikotasun “erromantikoan” eta aro eta leku hortan poetaren « zorigaitzeko gogoan », laster « madarikatua » erranen denean. Rousseau zukeen gogoan une batez ukan zuenean 1857-an, *Gaitzaren Lore*-tarik berehala, hasia zuen bildumari *Ibiltzale bakartua* izenburuaren emaiteko xedea, *Hitz laxoko poemak* bilakatu aitzin 1861-ean, *Parisko gogo ilundura* 1862-an, azpi-izenburutako geldituko dena 1869-an, Baudelaire hil eta bi urte berantago *Poema xipiak laxoan* agertuko direnean. Poema horiek baino ezer ezta bizkitartean Rousseau-k azken zorionak hartan aurkitzen zituen naturalezari beha egoitetik urrunago. Elgarrizketa laburrenetik Edgar Poe-ren arako ipuinen neurrirano, eskaintzak iragartzen duen gaietako aldatzean, Baudelaire-ek erraiten ditu, estilo bizi eta preseski bere mundua duen aro hartako burjesiaren aldera oldetsu batean ere, gogamenak, antsiak, ederrezko ametsak, beti bertze nunbait ezin aurki baten bila.

Charles Baudelaire (1821-1867) s’est voulu le poète de Paris dans sa modernité « romantique » et avec la « conscience malheureuse », « maudite » dira-t-on bientôt, qui est le sort du poète en ce temps et ce lieu. Sans doute pensait-il à Rousseau quand il eut un temps l’idée d’intituler *Le Promeneur solitaire* le recueil des textes qu’il avait commencé à publier en 1857, tout de suite après *Les Fleurs du mal*, comme *Poèmes nocturnes*, avant de devenir en 1861 les *Poèmes en prose*, en 1862 *Le Spleen de Paris*, qui restera en sous-titre dans l’édition des *Petits poèmes en prose* qui sera publiée en 1869 deux ans après sa mort. Rien pourtant n’est plus loin que ces poèmes de la contemplation de la nature où Rousseau trouvait ses derniers bonheurs. Du dialogue le plus bref aux dimensions du conte à la Edgar Poe, Baudelaire, dans la grande variété des sujets qu’annonce sa dédicace, exprime, dans un style piquant et même agressif à l’égard de la société bourgeoise de son temps, qui est précisément la sienne, ses états d’âme, ses angoisses et ses rêves de beauté, toujours en quête d’un ailleurs inaccessible.



.....